7 Ikerketak

ALBOAN

Giza Eskubideak nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan txertatzen: lorpenak eta aukerak

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Saburuordetza
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Objetivos de Desarrollo del Milenio
Mugarteko Garapen Helburuak

Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuen egoerari buruzko 5 ikerketaz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (sakontzeko koadernoak, komikiak, posterrak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

Ikerketak ALBOAN

1. Herritartasunetik hiritartasunera eta hiritartasunetik herritartasunera. Ibilitako bidea. (2006)
2. Participación ciudadana y sistematización de experiencias. (2007)
3. Zenbakiez haratago: Euskadiko garapenerako lankidetza eztabaidan. (2007)
4. Nazioarteko boluntario-lana: inplikazioaren eta elkarrizketa kulturalaren esperientzia. Ikasteko esperientzia. (2007)
5. Zor jasangaitza. (2008)
6. Garapenaren finantzaketarako nazioarteko baliabideak: Tobin tasa eta “International Finance Facility”. (2008)
7. Giza Eskubideak nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan txertatzen: lorpenak eta aukerak. (2008)

Giza Eskubideak nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan txertatzen: lorpenak eta aukerak

Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Felipe Gómez Isa

Data: martxoa 2008

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-533-08

ISBN: 978-84-612-2232-2

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

Giza Eskubideak nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan txertatzen: lorpenak eta aukerak

I. Hitzaurrea 5

II. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen bilakaera 7

III. Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeak Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegitik 11

IV. Enpresa transnazionalak: erantzukizun handiagoa eskatu behar zaie 14

V. Pribatizazioa Giza Eskubideen ikuspegitik 18

VI. Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeen jardueretan Giza Eskubideen gaineko kezka txertatzeko saiakerak 27

VII. Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeetan Giza Eskubideak txertatzeko zenbait proposamen 33

Giza Eskubideak Nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan txertatzen: lorpenak eta aukerak

*Felipe Gómez Isa**

I. Hitzaurrea

Gaur egungo indar bultzatzaile nagusietakoa bihurtu da globalizazioa. Globalizazio horrek egundoko aukerak ematen ditu teknologia berrien nahiz berehalako komunikazioen esparruan, eta hazkuntza ekonomiko oso handia bultzatu du munduko zenbait tokitan. Hala ere, gero eta ardura handiagoa sortzen du Giza Eskubideen arloan duen eraginak. 2000. urteko irailean Nazio Batuetan hotsandiz onartutako *Milurtekoko Adierazpena*ren arabera,

> "egun dugun eginkizun nagusia da mundializazioa indar positibo bihurtzea munduko biztanle guztientzat; izan ere, aukera handiak eskaintzen dituen arren, gaur egun haren irabaziak ez dira modu berean banatzen toki guztietan... Gure iritziz, soilik ahalegin zabalak eta iraunkorrak eginez... lortuko dugu mundializazioak guztiak kontuan hartzea eta erabat zuzena izatea"[1].

Adierazpen horren alderdirik garrantzitsuenetakoa da Nazio Batuen Batzar Nagusiak "*guztiak kontuan hartuko* dituen eta erabat *zuzena* izango den" globalizazioa aldarrikatu duela (letra etzana geuk jarri dugu). Horrek argi erakusten du

* Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko ikertzailea Deustuko Unibertsitatean.

[1] *Milurtekoko Adierazpena*, Nazio Batuen Batzar Nagusiko 55/2 Ebazpena, 2000ko irailaren 8koa. Frantsesez hitz egiten duten herrialdeek globalizazioa adierazteko erabili ohi duten terminoa da *mundializazioa*. Beraz, esanahi bera dute termino biek.

oraingo globalizazio-prozesuak ez duela bide hori hartu. Ostera, ikusten dugunez, prozesu horrek bazterketa eta muturreko desberdintasunak sortzen ditu, eta horrek zalantza handiak eragiten ditu Giza Eskubide zibil nahiz politikoen ikuspegitik, batez ere eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei dagokienez. Hainbat erakundek dituzte kezka horiek; besteak beste, nabarmentzekoa da Sindikatu Askeen Nazioarteko Konfederazioa (IFCTU, ingelesezko sigletan). Izan ere, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordeak globalizazioa eta hark eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen erabileran dituen eraginak aztertzeko deitutako Eztabaidarako Egun Orokor batean, hauxe azpimarratu zuen: "Hazkuntza ekonomiko dinamikorako mekanismo oso ahaltsua da merkatu globala, baina aberastasunaren edo estatusaren abantailarik ez duten milioika herritar arrunten bazterketa eta marjinazioa ere ekar dezake. Merkatua bateratu egin behar da eta bestelako interesak hartu behar ditu kontuan"[2].

Globalizazio-prozesua eragin handia izaten ari da estatu espainiarrean zein nazioartean garrantzitsu bihurtu diren eragileetan ere. Globalizazio-dinamiken ezaugarriak dira finantza- eta merkataritza-liberalizazio gero eta handiagoa, desarautze bizia, atzerriko inbertsioari gero eta oztopo gutxiago jartzea eta pribatizazio-prozesu zabalak (neurri horiek guztiak *Washingtoneko Hitzarmena* deitu izan denaren barruan sar ditzakegu). Ezaugarri hori dela bide, ikaragarri gutxitzen ari da estatuak ekonomian eta gizartean duen eginkizuna. Hori guztia dela eta, gutxika-gutxika merkatuaren eskuetan uzten ari dira esparru publikoaren barruan zeuden sektoreak. Horren ondorioz, herrialde askotan estatuek gutxiago babesten dituzte Giza Eskubideak, eta batez ere eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen gaineko eragina du horrek, horiexek direlako funtsean estatuaren mende daudenak. Estatuak eskaintzen dituen zerbitzuetan daude eskubide horiek; esate baterako, osasun-zerbitzuak, hezkuntza, elikadura eta jantziak, gizarte-zerbitzuak, gizarte-segurantzako sistema publikoa... Estatuak murrizketa eta mozketa zorrotzak egin ditu zenbait sektoretan, eta horrek estatuaren zinezko betebehar juridikoak alde batera uztea dakar askotan[3]. "Giza Eskubideen pixkanakako pribatizaziorako" joera hori ondorio oso garrantzitsuak izaten ari da

[2] Day of General Discussion: Globalization and its impact on the enjoyment of economic and social rights, Background paper submitted by the International Confederation of Free Trade Unions (ICFTU), UN Doc. E/C.12/1998/4.

[3] Horri buruz, ezin dugu ahaztu Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Itunaren 2. artikulua. Artikulu horrek Estatuaren esku uzten du argi eta garbi eskubide horiek modu eraginkorrean babesteko betebeharra. 2. artikulu horrek dioenez, "Itun honen alderdi diren estatuetako bakoitzak konpromisoa hartzen du hemen onartutako eskubideen eraginkortasun osoa... gutxika-gutxika lortzeko... neurriak hartzeko, bakoitzak bere aldetik, nahiz nazioarteko laguntzaren eta lankidetzaren bidez".

eskubide horien babesari eta bermeari dagokienez[4]. Estatuaren eginkizuna bereziki gutxitu da garapen bidean dauden herrialde askotan, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Moneta Funtsak inposatutako Egitura Doikuntzarako Programak aplikatu direlako. Hori dela eta, are gehiago txartu da –ez zen erraza!– gizarte- eta ekonomia-eskubideek herrialde horietan jasaten duten egoera, eta horrek ondorioak ditu eskubide zibil eta politikoak erabiltzeko ere. Eskubide sozial guztiak zatiezinak eta elkarren mendekoak direnez, eskubide-mota jakin bat kaltetuz gero, gainerakoetan ere izaten du horrek eraginik. Kontua da Bretton Woodseko erakundeek antolatutako doikuntza makroekonomikorako plan horiek ondorio oso larriak izan dituztela Giza Eskubideei dagokienez[5].

Beraz, estatuaren eginkizuna gutxitu egin da pixkanaka, eta, horri oso lotuta, garrantzi gero eta handiagoa hartu dute nazioarteko finantza eta merkataritza erakundeek (bereziki, Munduko Bankuak, Nazioarteko Moneta Funtsak, NMF, eta Munduko Merkataritza Erakundeak, MME) eta enpresa transnazional handiek.

Artikulu honen bidez aztertu nahi dugu zenbateraino bidera ditzakeen Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak munduko ekonomia zuzentzen duten erakundeen jarduerak. Horretarako, hasteko, zuzenbide horren orain arteko bilakaera zein izan den labur azaltzen saiatuko gara (II. atala), baita nazioarteko finantza eta merkataritza erakundeekin (III. atala) eta enpresa transnazionalekin (IV. atala) duen harremana ere. Bigarrenik, gaur egun ia mundu osoan dugun pribatizazio-prozesuari buruzko zenbait hausnarketa egingo ditugu, Giza Eskubideen ikuspegitik (V. atala). Hirugarrenik, Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeen jardueretan Giza Eskubideen gaineko kezkak txertatzeko saiakerak aztertuko ditugu (VI. atala), eta, bukatzeko, zenbait proposamensaio egingo ditugu, Giza Eskubideak jarduera guztietan zeharkako bihurtzeko modu eraginkorrean (VII. atala).

II. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen bilakaera[6]

Bigarren Mundu Gerran egindako ankerkeria basatiengatik sortu zen gizabanakoa nazioarteko zuzenbide publikoko subjektu eta, beraz, zenbait eskubideren

---

[4] Barrios Mendivil, R.: "Obstáculos para la vigencia de los derechos económicos, sociales y culturales", in Terre des hommes, *El derecho a la equidad. Ética y mundialización social*, Bartzelona, Icaria, 1997, 83-116 or.

[5] PIGRAU I SOLE, A.: "Las políticas del FMI y del Banco Mundial y los Derechos de los Pueblos", *Afers Internacionals*, 1995, 29-30. zk., 139-175. or.

[6] Hemen irakur daiteke Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak bizi izan duen garapen ikusgarriari buruzko azterketa zehatzagoa: GÓMEZ ISA, F. and DE FEYTER, K. (Arg.): *International Protection of Human Rights: Achievements and Challenges*, HumanitarianNet-University of Deusto, Bilbo, 2006.

jabe gisara. 1945eko ekainean San Franciscon egin zen Biltzarrean, Giza Eskubideak izan ziren eztabaidagai nagusietakoa. Biltzar haren helburua zen nazioarteko erakunde berri bat sortzea, Nazioen Elkartea ordezkatzeko eta nazioartean bakea eta segurtasuna sustatzeko. Giza Eskubideei eman zitzaien garrantzia zela eta, leku berezia dute eskubide horiek Nazio Batuen Gutunean, erakunde berria sortu zuen dokumentuan. Gutunaren hitzaurrean, "gizakien funtsezko eskubideetan..., duintasunean eta balioan duten fedea" berresten dute sinatzaileek, baita "gizon-emakumeen arteko berdintasunean" dutena ere. Horrez gain, Nazio Batuetako herriek adierazten dute erabakia hartu dutela "gizarte-aurrerapena sustatzeko eta bizi-maila handitzeko *askatasunaren kontzeptu zabalago* baten barruan" (letra etzana geuk jarri dugu)[7]. Ikusten duzuenez, Nazio Batuen Erakundea sortu zenetik argi zegoen gizarte-aurrerapena eta garapena ezin zirela Giza Eskubideen babesetik eta sustapenetik banatu; halaber, Nazio Batuen Gutunean ageri den Giza Eskubideen kontzeptuak guztia hartzen du bere baitan, izaera zibil eta politikoko askatasun klasikoak nahiz izaera sozial eta ekonomikoko eskubide berriak hartzen baititu kontuan. Nazio Batuen Gutunaren espirituan eta haren azpian datzan ideologian dago jasota Giza Eskubide guztien zatiezintasunaren printzipioa. Tamalez, Gerra Hotzak eragin oso txarra izan zuen printzipio horretan, eta Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko desadostasun- eta eztabaida-iturri nagusietakoa bihurtu ziren Giza Eskubideak.

Gutunaren 1.3 artikuluak ere dio Giza Eskubideak Erakundearen helburu nagusietako bat direla. Xedapen horren arabera, Nazio Batuen helburua da "nazioarteko lankidetza egitea... guztien oinarrizko Giza Eskubideen eta askatasunen errespetua garatuz eta sustatuz, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioaren araberako bereizketarik egin gabe". Bukatzeko, Nazio Batuen Gutuneko IX. atalean, nazioarteko lankidetza ekonomiko eta sozialari buruzkoan, bi xedapen aipatu behar ditugu, gutxienez. 55. artikuluak hauxe dio:

> "nazioen arteko harreman baketsu eta lagunkoietarako behar diren egonkortasun- eta ongizate-baldintzak sortzeko xedearekin..., hau sustatuko du Erakundeak:

[7] Adierazgarria da Nazio Batuetako idazkari nagusiak 2005eko martxoan Nazio Batuen erreformari buruz egin zuen txosten famatuak "Askatasunaren kontzeptu zabalagoa: garapena, segurtasuna eta Giza Eskubideak denentzat" izen sinbolikoa izatea. Garapena, segurtasuna eta Giza Eskubideak NBEren lanaren hiru oinarri nagusiak bihurtu direla azpimarratzen du horrek. Idazkari Nagusiak dioenez, "ez dugu garapenik izango segurtasunik gabe, ez dugu segurtasunik izango garapenik gabe eta ez dugu izango ez segurtasunik ez garapenik Giza Eskubideak ez badira errespetatzen. Kausa horiek guztiak ez badira sustatzen, batek ere ez du arrakastarik izango" A/59/2005, 17. parag.

... c) guztien oinarrizko Giza Eskubideen eta askatasunen errespetu unibertsala, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioaren araberako bereizketarik egin gabe, eta eskubide eta askatasun horien eraginkortasuna".

Bestalde, 56. artikuluak xedatzen duenez, "bazkide guztiek hartzen dute konpromisoa elkarrekin edo bakoitzak bere aldetik neurriak hartzeko, Erakundearekin lankidetzan, 55. artikuluan jasotako xedeak bete daitezen". Argi ikusten denez, Nazio Batuek nahiz erakundeko estatu bakoitzak bere gain hartzen dute Giza Eskubideak errespetatzeko eta sustatzeko betebehar juridikoa, eta haien funtsezko helburu bihurtzen dira, beraz.

Azaldu ditugun Gutuneko xedapen garrantzitsu horien arazoetako bat da ez dutela azaltzen zer jotzen duten Giza Eskubidetzat, Gutunean ez baitago Giza Eskubideen katalogorik. Horrenbestez, aitortu beharra dago Giza Eskubideen Gutunean ageri diren erreferentziak oso orokorrak direla, baita lausoak eta zehaztugabeak ere, nolabait. Bestalde, xedapen horiek eurek betebehar juridikoak ezartzen dizkiete Nazio Batuei zein haren kideei, eta 1945etik aurrera Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak izan duen garapen izugarriaren oinarri legala eta kontzeptuala dira[8].

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak garatu eta sakondu zituen Giza Eskubideei buruzko Nazioen Gutunaren xedapenak 1948ko abenduaren 10ean. Adierazpen hori eskubide zibil eta politikoen nahiz ekonomiko, sozial eta kulturalen katalogo xehatua da. Nazio Batuen Gutunean ageri diren Giza Eskubideei buruzko xedapenen "interpretazio baimendutzat" jo izan da Adierazpen Unibertsala[9] eta, beraz, Gutuna eta Adierazpena batera irakurri behar dira Giza Eskubideen esparruan Nazio Batuek zein estatuek bere gain hartu behar dituzten betebeharrak identifikatu eta zehazteko.

Aditu gehienek diote Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko eskubideetako asko Nazioarteko Zuzenbideko ohiturazko arau bihurtu direla, hau da, nazioarteko ohitura, bereziki eskubide zibil eta politikoen atalean ageri direnak[10]. Beraz, nazioarteko komunitateko estatu guztientzat lirateke lotesleak arau horiek. Bestalde, Nazioarteko Justizia Auzitegiaren iritziz, Giza Eskubideen arloko arau

---

[8] Ikus, horri buruz, VILLÁN DURÁN, C.: *Curso de Derecho Internacional de los Derechos Humanos*, Trotta, Madril, 2002.

[9] GÓMEZ ISA, F. y ORAÁ, J.: *La Declaración Universal de Derechos Humanos*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2002.

[10] INTERNATIONAL LAW ASSOCIATION: "Final Report on the Status of the Universal Declaration of Human Rights in National and International Law", *ILA Report of the Sixty-Sixth Conference,* Buenos Aires (Argentina), 1994, 527. or. eta hk. Azken txosten horretan Adierazpen Unibertsala estatuetako barne-ordenamendu juridikoetan jasotzeari buruzko azterketa xehatua dugu, jurisprudentzia-izaerako adierazpenekin batera.

oinarrizkoenetako batzuek *erga omnes betebeharren* izaera eskuratu dute eta, hortaz, *ius cogens* arautzat jo daitezke, nazioarteko esparru juridikoko arau-kategoria nagusitzat[11]. *Ius cogens* arau-izaera hartu duten arauen artean, genozidioa, esklabotza eta esklaboen merkataritza, arraza-diskriminazioa, tortura debekatzen dituztenak[12] jaso ditu Nazioarteko Justizia Auzitegiak edo, duela gutxi, herrien autodeterminazio-eskubidea[13].

Nazio Batuen Gutuneko 103. artikuluari lotuta dago Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen hierarkiari buruzko azken oharra. Artikulu horrek dioenez, Gutunaren ondorio diren betebehar juridikoak nazioarteko bestelako itunen ondorio diren zeinahi betebeharren gainetik daude. Xedapen horrek ezarritakoaren arabera,

> "Nazio Batuen Kideek Gutun honen arabera hartutako betebeharren eta nazioarteko bestelako zeinahi hitzarmenen arabera hartutako betebeharren artean gatazkaren bat badago, *Gutun honen betebeharrak bete behar dira*" (letra etzana geuk jarri dugu).

Nazio Batuen Gutuneko Giza Eskubideen betebeharren irismena da beste behin arau hori interpretatzean sortzen den arazoa. Adostasun gero eta handiagoa dago eskubide zibil eta politiko oinarrizkoen aplikazioari buruz. Aldiz, zalantza asko sortzen dira arau hori eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei aplikatzean. Giza Eskubide guztien zatiezintasunaren printzipioa behin baino gehiagotan aldarrikatu den arren[14], onartu egin behar dugu bigarren belaunaldiko eskubideen

---

[11] Itunen Zuzenbideari buruzko Vienako Biltzarreko (1969) 53. artikuluaren arabera, "baliogabea da egiten ari den unean Nazioarteko Zuzenbide orokorreko aginduzko arau baten aurkakoa den zeinahi itun. Biltzar honen ustez, estatuen nazioarteko komunitate osoak onartu eta aitortzen duen araua da Nazioarteko Zuzenbide orokorreko aginduzko arau bat. Kontrako hitzarmenik onartzen ez duen araua da, eta izaera bereko Nazioarteko Zuzenbide orokorreko geroagoko arau baten bidez bakarrik alda daiteke". Aldi berean, arau horiek duten garrantzi erabakigarria dela eta, atzeraeraginezko izaera dute; izan ere, Vienako Biltzar horretako 64. artikuluak dioenez, "Nazioarteko Zuzenbide orokorreko aginduzko beste arau bat sortuz gero, arau horren aurka dagoen edozein itun baliogabetu eta bukatu egingo da".

[12] Barcelona Traction Case, *CIJ Recueil*, 1970.

[13] Azpimarratzekoa da Hagako Auzitegiak Ekialdeko Timorri buruzko kasuan izan zuen iritzia (*ICJ Recueil*, 1995): "Gortearen ustez, akatsgabea da Portugalen adierazpena, hau da, herrien autodeterminaziorako eskubideak, Nazio Batuen Gutunetik eta Nazio Batuen jardutearen bidez izan duen bilakaeraren arabera, *erga omnes* izaera du. Herrien autodeterminazio-eskubidea onartu dute Nazio Batuen Gutunak eta Gorteko jurisprudentziak...; gaur egungo nazioarteko Zuzenbideko funtsezko printzipioetako bat da. Printzipio horrek Nazioarteko Zuzenbide modernoan duen irismenari buruzko azterketa sakona hemen begira daiteke: GÓMEZ ISA, F.: "El derecho de autodeterminación en el Derecho Internacional contemporáneo", in *Derecho de autodeterminación y realidad vasca*, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2002, 267-318. or.

[14] Nazioarteko hainbat adierazpenetan jaso da printzipio hori, bai Nazio Batuen Gutunean eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, baita duela gutxiagoko Vienako Adierazpenean eta Ekintza Programan ere. Vienako Adierazpenaren arabera, "Giza Eskubide guztiak unibertsalak, zatiezinak eta bata bestearen mendekoak dira, eta elkarri lotuta daude. Nazioarteko komunitateak modu globalean, bidezkoan eta zuzenean tratatu behar ditu Giza Eskubideak, berdintasunean eta guztiei garrantzi bera emanez", A/CONF.157/23, 1993ko uztailaren 12a, I. atala, 5. parag.

estatus juridikoa eta garapena ezberdina dela, eskubide zibil eta politikoekin alderatzen baditugu. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak askoz gutxiago garatu dira kontzeptuaren, erakundearen eta jurisprudentziaren aldetik, eta ikusteko dago ohiturazko arau bihurtu diren. Horixe dugu arazo nagusietakoa Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeei aplikatzen saiatzen garenean, haren arau eta politikek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei eragiten baitiete batez ere. Ahalegin eta lan asko egin behar da oraindik eskubide horiek argitu eta garatzeko. Tresna eta estrategia berriak behar ditugu eskubide horiek ezartzeko dauden arazoei aurre egiteko, aurrerago ikusiko dugunez.

III. Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeak Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegitik

Ikuspegi juridikotik, Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeak nazioarteko erakundeak dira eta, beraz, Nazioarteko Zuzenbide Publikoa bete behar dute. Hori dela eta, nazioarteko erakunde direnez, Nazioarteko Zuzenbideko eskubide eta betebeharrak izan ditzakete[15]. Nazioarteko Zuzenbidean erakunde horiek duten izaera juridikoaren ondorioz, nazioarteko zuzenbideko arau orokorren aplikazioaren mende daude, bereziki nazioarteko ohituren eta Nazioarteko Zuzenbideko printzipio orokorren mende. Koen de Feyter-en iritziaren arabera (oso kontuan hartzekoa), Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideko arau orokor debekatzaileak errespetatzeko obligazioa dute nazioarteko finantza eta merkataritza erakundeek: haien betebeharra da zuzenbide horren arau orokorrak ez haustea edo haustearen gaizkide ez izatea. Hala ere, bukatzeko hauxe dio: askotan "zaila da zehaztea Giza Eskubideen zuzenbideko arau orokorren eduki zehatza"[16], bereziki eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen arloan, lehenago esan dugun bezala.

Nazio Batuen Gutunak aukera ematen du Nazio Batuen sistemak *lotura-akordioak* ezar ditzan nazioarteko beste erakunde batzuekin, NBEren eginkizunekin lotutako lanetan dihardutenak badira. Gutuneko 63.1 artikuluaren arabera, "57. artikuluak aipatzen dituen erakunde espezializatuetako edozeinekin egin ahal

[15] AMERASINGHE, C.F.: Principles of the institutional law of international organizations, Cambridge University Press, Cambridge, 1996, 240. or.

[16] DE FEYTER, K.: "The International Financial Institutions and Human Rights. Law and Practice", in GÓMEZ ISA, F. and DE FEYTER, K. (Arg.): *International Protection of Human Rights: Achievements and Challenges,* HumanitarianNet-University of Deusto, Bilbo, 2006, 563. or.

izango ditu akordioak Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak, erakunde horiek Erakundearekin lotzeko baldintzak ezartzeko". Munduko Merkataritza Erakundea (MME) ez bezala, Bretton Woodseko erakundeak 1947an bihurtu ziren Nazio Batuetako erakunde espezializatu, Erakundeari lotzeko bi hitzarmen izenpetu ostean. Hortaz, formalki, Nazio Batuen sistemaren parte dira eta nazioarteko lankidetza sozial eta ekonomikoaren arloan eskumenak dituzten sistemako erakunde nagusiekin koordinatu behar dituzte beren jarduerak[17]. Lotura-akordio horietan jasota dago erakunde espezializatuek nazioarteko lankidetzako helburu ekonomiko eta sozialak betetzen laguntzeko betebeharra dutela, aipatu dugun Gutuneko 55. artikuluak dioenez. Beraz, Giza Eskubideak guztiek errespetatu eta bete ditzaten laguntzeko betebeharra dute Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) eta Munduko Bankuak. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordeak argitu egin ditu Giza Eskubideen arloan erakunde espezializatuaren estatusa eskuratzeak dituen ondorioak:

> "Nola edo hala eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak bultzatzen parte hartzen duten Nazio Batuetako erakundeak saiatu egin behar dira haien jarduera eskubide zibil eta politikoak erabiltzearekin erabat bateragarri egiten, ahal duten bitarteko guztien bidez. Ikuspegi negatibotik, horrek esan nahi du nazioarteko erakundeek kontu handiz saihestu beharko luketela, esate baterako, nazioarteko arauak hautsiz behartutako lanak erabiltzen dituzten proiektuetan parte hartzea, edo Itunaren xedapenen kontrakoa den gizabanakoen edo taldeen aurkako diskriminazioa bultzatu edo sendotzen duten proiektuetan, edota gizaki-kopuru handiak egoztea edo lekuz aldatzea dakarten proiektuetan, babes eta ordain egoki osoa eskaini gabe. Ikuspegi positibotik, esan nahi du ahal den neurrian hazkuntza ekonomikoari edo modu zabalean definitutako bestelako proiektuei laguntzen dieten proiektu eta metodoen sustatzaile izateaz gain erakundeek Giza Eskubide guztiak erabili ahal izatea bultzatu behar luketela"[18].

Argiak dira aipatu dugun Nazio Batuen Gutunaren xedapenak eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituna estatuek nola apli-

---

[17] Nazio Batuen Gutuneko 63.2 artikuluak dioenez, "Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak erakunde espezializatuen jarduerak koordinatu ahal izango ditu haiei egindako kontsulten bidez eta gomendioak eginez, baita Batzar Nagusiari eta Nazio Batuen Kideei egindako gomendioen bidez ere.

[18] Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordea, 2. Ohar Orokorra, E/1990/23, III. eranskina, 6. parag.

katzen duten ikuskatzen duen Batzordeak adierazitako iritziak. Hala ere, duela oso gutxi arte ez da egon benetako koordinaziorik garapenaz eta Giza Eskubideez arduratzen diren Nazio Batuetako organoen jardueren eta Bretton Woodseko erakundeen jardueren artean, aurrerago ikusiko dugunez. Egiatan, beren autonomia eta independentzia ahal bezain beste gordetzen saiatu dira Munduko Bankua eta, bereziki, Nazioarteko Moneta Funtsa.

Nazioarteko Merkataritza Erakundea ez da Nazio Batuetako erakunde espezializatua. 90eko hamarkadaren hasieran, MMEren sorrera eztabaidatzen ari zenean, Nazio Batuen sistemarekin zeinahi lotura formal izatea ekiditen saiatu ziren herrialde industrializatuak; autonomia eta independentzia osoa nahi zuten merkataritza-liberalizazioan aurrera egiteko. Marrakexeko Akordioaren 3.5 artikuluak MME ezarri zuen[19] eta nazioarteko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko beharra onartzen du. Xedapen horrek ezartzen duenez, "munduko politika ekonomikoen formulazioan koherentzia handiagoa lortzeko, MME lankidetzan arituko da, egokia denean, Munduko Moneta Funtsarekin eta Berreraikuntza eta Sustapenerako Nazioarteko Bankuarekin eta haiei lotutako erakundeekin". 1996an hitzarmen bat izenpetu zen MMEren eta Bretton Woodseko erakundeen artean. Nahiko argi dago MMEren iritziz askoz egokiagoa dela Munduko Bankuarekin eta NMFrekin lankidetzan aritzea Nazio Batuen sistemarekin baino, nahiz eta MME ezartzen duen Akordioak aukera hori ere jasotzen duen. Hitzarmen horren 5.1 artikuluak ezartzen duenez, "Kontseilu Nagusiak lankidetza eraginkorreko hitzarmen egokiak itunduko ditu MMEren antzeko ardurak dituzten gobernu arteko bestelako erakundeekin". MMEk nazioarteko beste erakunde batzuekin horrelako hitzarmenak egiteko "betebehar formala" duela[20] izan da xedapen horretan "itundu" terminoa erabiltzeari eman zaion interpretazioa. MMEren eta Nazio Batuen arteko lankidetza-akordio bat egiteak lehentasuna izan behar luke; izan ere, garapenaren eta Giza Eskubideen ikuspegitik ez du inolako zentzurik MMEren eta haren helburu nagusien artean nazioartean garapena eta Giza Eskubideak garatzea dituen nazioarteko erakundearen artean harreman formalik ez egoteak.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeen parte diren estatuek bere gain hartu dituztela, bakoitzak bere aldetik, Giza Eskubideen arloko betebehar juridikoak, Nazio Batuen Gutuna eta Giza

---

[19] 1994ko apirilaren 15ean onartu zen, eta 1995eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean.

[20] HOUSE, R. and MUTUA, M.: Protecting Human Rights in a global economy. Challenges for the World Trade Organization, International Centre for Human Rights and Democratic Development, 2000.

Eskubideak babesten dituzten nazioarteko itun asko berretsi baitituzte[21]. Aipatu dugunez, Giza Eskubide guztiak errespetatu eta bete daitezen sustatzeko betebeharra dute estatuek, Nazio Batuen Gutuneko 55. artikuluak azpimarratzen duenez. Hortaz, NFMEren esparruko arau eta politika globalak zehaztu eta antolatzeko, eta, batez ere, aplikatzeko, estatuek kontuan hartu behar lukete nazioarteko betebeharrek lotzen dituztela juridikoki, hain zuzen ere, estatuak parte diren nazioarteko tresnen eta Nazioarteko Zuzenbideko arau orokorren ondorio dira betebehar horiek[22]. Iritzi hori adierazi du hainbat aldiz Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordeak. Esate baterako, hezkuntza-eskubideari dagokionez, hauxe aldarrikatu du Batzordeak:

> "nazioarteko hitzarmenen negoziazioari eta berrespenari dagokionez, estatuek neurriak hartu behar dituzte tresna horiek eragin txarrik izan ez dezaten hezkuntza-eskubidean. Halaber, haien betebeharra da nazioarteko erakundeetako kide gisa egiten dituzten jarduerek hezkuntza-eskubidea behar den bezala kontuan izatea, nazioarteko *finantza-erakundeetako kide gisa egiten dituztenetan ere*"[23] (letra etzana geuk jarri dugu).

IV. Enpresa transnazionalak: erantzukizun handiagoa eskatu behar zaie

Gaur egungo globalizazio-prozesuaren ondorioz, enpresa transnazionalek garrantzi handiagoa dute, eta munduko ekonomia-esparru berriko eragile nagusietakoak dira orain. Inbertitzaileen eskubideak zehaztea eta antolatzea izan da nazioarteko inbertsioaren liberalizazio gero eta handiagoaren funtsezko helburua. Hori dela eta, gizabanakoei lotutako zenbait betebeharrekin orekatu behar dira eskubide horiek[24]. Estatua izan da betebeharren subjektu nagusia Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean, eta eragile pribatuak alde batera utzi izan dira. Azken hamarkadetan, hainbat ekimen egin dira enpresa

---

[21] 2006ko martxoaren 9an, 152 estatuk berretsi dute eskubide zibil eta politikoei buruzko Nazioarteko Ituna; 154k eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei buruzko Nazioarteko Ituna; 170ek Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Hitzarmena; 180k Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeko Hitzarmena; 141ek Torturaren aurkako Hitzarmena; eta 192k Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena (www.unhchr.ch orriko informazioa).

[22] Ikus, besteak beste, SKOGLY, S.: The human rights obligations of the World Bank and the International Monetary Fund, Cavendish, London, 2001; DARROW, M.: Between light and shadow. The World Bank, the International Monetary Fund and International Human Rights Law, Hart, Oxford, 2003.

[23] 13. ohar orokorra, *Hezkuntzarako eskubidea (Ituneko 13. artikulua)*, E/C.12/1999/10, 1999ko abenduaren 8a, 56. parag.

[24] OHCHR: *Human Rights, Trade and Investment*, E/CN.4/Sub.2/2003/9, 2 July 2003.

transnazionalei eta bestelako eragile pribatuei nazioarteko erantzukizun juridikoa exijitzeko[25].

Enpresa horien jardueretako batzuek zalantza larriak sortzen dituzte Giza Eskubideen ikuspegitik, bereziki eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen eta garapen-eskubideari dagokienez[26]. Alde horretatik, Giza Eskubideetarako Nazio Batuetako Goi Mandatari ohi Mary Robinsonek behin eta berriz adierazi du *Business and Human Rights* izeneko txostenaren aurkezpenean "nazioartean onartuta dauden Giza Eskubideak babesten lagundu eta errespetatu behar lukete enpresek eragina duten tokietan, eta Giza Eskubideak urratzearen gaizkide bihurtzen ez direla ziurtatu behar lukete"[27]. Kezka horrekin zerikusia dute enpresa transnazional jakin batzuen inguruan sortu diren eskandaluek, lan-eskubide oinarrizkoenak urratu direla egiaztatu baita: haurren esplotazioa, estatu batzuen barneko arazoetan sartzea, haien ekoizpen-jardueren ingurumen-ondorio larriak[28]...

Orain arte, bi modutara jardun da enpresa transnazionalei betebeharrak ezartzeko: alde batetik, printzipioak eta prozedurak hartu dira *Erantzukizun Sozial Korporatiboa* izeneko esparruan, eta, bestetik, printzipio eta arau lotesleak ezartzen saiatu dira enpresetatik kanpoko erakundeak.

Erantzukizun Sozial Korporatiboa sustatzeko neurriak borondatezkoak dira, eta enpresen borondate onaren mende daude ia bakarrik. Itun Globala (*Global*

---

[25] CLAPHAM, A.: *The Human Rights Obligations of Non-State Actors*, Oxford University Press, Oxford, 2006.

[26] Ikerketa asko egiten ari dira gai horri buruz. Besteak beste, hauexek nabarmen ditzakegu: KAMMINGA, M.T.: 'Holding Multinational Corporations Accountable for Human Rights Abuses: A Challenge for the EC', in ALSTON, P. (arg.), *The EU and Human Rights*, Oxford, Oxford University Press, 1999, 553-569. or.; GÓMEZ ISA, F.: 'Las Empresas Transnacionales y sus obligaciones en materia de derechos humanos', in COURTIS, C. et al. (Biltz.): *Protección internacional de derechos humanos. Nuevos desafíos*, Porrúa-ITAM, Mexiko DF, 2005, 177-201. or.; C-H. THUAN (koor.), *Multinationales et Droits de l'Homme*, Amiens, Presses Universitaires de France-Centre de Relations Internationales et des Sciences Politiques d'Amiens, 1984; S. JOSEPH, 'Taming the Leviathans: Multinational Enterprises and Human Rights', XLVI NETH ILR, 1999, 171-203 or.; S.R. RATNER, 'Corporations and Human Rights: A Theory of Legal Responsibility', 111 YALE L. J., 2001, 443-545. or.

[27] Business and Human Rights: A Progress Report, OHCHR, Geneva, January 2000, 2. or.

[28] Adibide bakarra jartzearren, Sudanen gertatu diren Giza Eskubideen urratze larrietan petrolioaren sektoreko hainbat enpresa transnazional gaizkide izan direla salatu du Amnistia Internazionalek. Gainera, enpresa horiek etekina ateratzen dute Giza Eskubideak urratzetik, petrolioa errazago ustia baitezakete, in AMNESTY INTERNATIONAL: *Sudan: The Human Price of Oil*, AFR 54/04/00, 2000ko maiatzaren 3a. Ikus hauek ere: *Sudan, Oil and Human Rights*, New York, Human Rights Watch, 2003, 754 orrialde; *Working Document on the impact of the activities of transnational corporations on the realization of economic, social and cultural rights,* prepared by Mr. El Hadji Guissé, pursuant to Sub-Commission resolution 1997/11, UN Doc. E/CN.4/Sub.2/1998/6; Secretary-General, *The impact of activities and working methods of transnational corporations on the full enjoyment of all human rights, in particular economic, social and cultural rights and the right to development, bearing in mind existing international guidelines, rules and standards relating to the subject-matter,* UN Doc. E/CN.4/Sub.2/1996/12; E. KOLODNER, *Transnational Corporations: Impediments or Catalysts of Social Development?*, UN Doc. UNRISD/OP/94/5, Geneva, November 1994; A. EIDE; H. OLE BERGESEN AND P. GOYER (arg.), *Human Rights and the Oil Industry*, Antwerp, Intersentia, 2000.

Compact) izenekoa izan da nazioarteko ekimenik aipagarriena. Nazio Batuetako Idazkari Nagusi Kofi Annanek plazaratu zuen, 1999an[29] Enpresako jardute onak eta esperientziak bultzatzeko eta sustatzeko plataforma bat da, enpresek Giza Eskubideez, lan-harremanez eta ingurumena babesteaz ikasteko balio dezaketenak. Horrez gain, Nazio Batuen, enpresen, sindikatuen eta gizarte zibileko taldeen arteko elkarrizketarako oinarri bat izan nahi du, enpresen jarduteak hobetzeari buruz. Horrelako ekimenen arazoa da borondatezkoak direla, eta ez duela kanpoko inork gutxieneko exijentzia duen ikuskapenik egiten; hortaz, askotan harreman publikoak egiteko modua baino ez dira izaten.

Enpresek jarraitu behar dituzten printzipio eta arauak jasotzen dituzten tresna juridikoak erabiltzea da negozioen sektorean Giza Eskubideekiko kezka txertatzeko beste estrategia. 70eko hamarkadaz geroztik hainbat ekimen egin dira Nazio Batuetan enpresa transnazionalentzako Jokabide Kode bat sortzeko. Hain zuzen ere, enpresek bete beharreko printzipio jakin batzuk ezarriko lirateke kode horren bidez[30]. Jokabide Kodeen proiektu honen azken bertsioetako baten 14. artikuluak hauxe dio[31]: "Jarduerak egiten dituzten herrialdeetako Giza Eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatu behar dituzte enpresa transnazionalek...". Tamalez, kode hori oraindik ez da onartu, enpresa transnazional gehienen egoitza nagusiak dituzten herrialde industrializatuak kontra daudelako. Halaber, Diskriminazioak Saihesteko eta Gutxiengoak Babesteko Azpibatzordeak[32] duela gutxi erabaki du lantalde bat osatzea enpresa transnazionalen lan-metodoak eta -jarduerak aztertzeko; azken batean, Giza Eskubideetan duten eragina jakiteko. Lantalde horrek hainbat bilera egin ditu 1999ko abuztuaz geroztik, eta enpresa transnazionalen lan-metodo eta jarduera jakin batzuek Giza Eskubideentzako dituzten arrisku larriak azpimarratu dituzte[33]. Hainbat bilera egin ziren enpresa

---

[29] Ekimen horri buruzko informazioa eskuratzeko, www.unglobalcompact.org begiratu.

[30] Orain arte izaera orokorreko bi Jokabide Kode onartu dira: Nazioarteko Inbertsioari eta Enpresa Multinazionalei buruzko Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen Adierazpena, 1976ko ekainaren 21ean onartu eta 1991n eta 2000n berrikusi zena, eta Enpresa Multinazionalei eta Gizarte Politikari lotutako Printzipioei buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen Hiruko Adierazpena, 1977ko azaroaren 16koa. Ekimen horiei buruz, ikus A. Kolk; R. Van Tulder and C. Welters, 'International Codes of Conduct and Corporate Social Responsibility: can transnational corporations regulate themselves?', 8 *Transnational Corporations* 1. zk., April 1999, 143-180. or.

[31] E/1990/94, 1990eko ekainaren 12a.

[32] Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak erabiltzearen eta garapenerako eskubidearen arteko lotura, eta enpresa transnazionalen lan-metodoak eta jarduerak, 1998ko abuztuaren 20ko 1998/8 Ebazpena.

[33] Lehenengo bilera-aldia kontuan hartuta Lanaldeak egindako txostena, lan-metodoak eta enpresa transnazionalen jarduerak aztertzeaz arduratutako bilera-aldiari buruzkoa, Lehendakaria-Kontalaria: El-Hadji GUISSE Jn., E/CN.4/Sub.2/1999/9, 1999ko abuztuaren 12a, 5. or. Bilera-aldiei buruzko txostena ere begira daiteke, in E/CN.4/Sub.2/2000/12, 2000ko abuztuaren 28a; E/CN.4/Sub.2/2001/9, 2001eko abuztuaren 14a; E/CN.4/Sub.2/2002/13, 2002ko abuztuaren 15a eta E/CN.4/Sub.2/2003/13, 2003ko abuztuaren 6a.

horiei buruzko tresnaren bat sortzeko eztabaidatzen eta lan horretan aurrera egiten. Horren ondoren, 2003ko abuztuan, lantaldeak bukatutzat jo zuen *Enpresa transnazionalen eta bestelako merkataritza-enpresen erantzukizunei buruzko arauak Giza Eskubideen arloan* proiektuaren eztabaida, eta Giza Eskubideak Sustatzeko eta Babesteko Azpibatzordeari igorri zizkion arauak. Azpibatzordeak hilabete horretan bertan onartu zituen[34], eta Giza Eskubideen Batzordeari igorri zizkion, 2004ko hurrengo bileran azter zitzan. Erantzukizun partekatua da arau horien printzipio nagusia. Hasieran, Proiektuaren hitzaurrean hauxe onartzen du: "Estatuek Giza Eskubideak sustatzeko eta babesteko, betetzen direla bermatzeko, errespetatzeko eta errespetarazteko funtsezko erantzukizuna duten arren, *enpresa transnazionalek eta bestelako merkataritza-enpresek ere*, gizarteko organoak direnez, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean adierazitako eskubideak sustatzeko eta babesteko *erantzukizuna dute*" (letra etzana geuk jarri dugu). Erantzukizun partekatu hori askoz zehatzago aztertzen da Proiektuaren A atalean, hau da, *Betebehar orokorrei* buruzkoan: 1. artikuluaren arabera,

> "... jardun eta eragiten duten arloetan, nazioarteko zuzenbidean eta estatuko legerian adierazitako Giza Eskubideak sustatzeko eta babesteko betebeharra dute enpresa transnazionalek eta bestelako merkataritza-enpresek, herrialde indigenen eta bestelako talde ahulen eskubideak eta interesak barne, eta eskubide horiek betetzen direla bermatu, errespetatu eta errespetarazi egin behar dute".

Hortaz, eragiten duten arloetan oinarrizko Giza Eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko betebeharra bere gain hartzen dute enpresa transnazionalek eta bestelako merkataritza-enpresek, eta arreta berezia jarri behar diete talde ahulei; esaterako, herri indigenei. Haien izaera juridikoaren eta ezartzeko abian jartzen diren mekanismoen gaiarekin dute zerikusia Arau Proiektu horien arazo nagusiek. Alderdi horiek oraindik ez dira erabat argitu testuan. Tamalez, 2004ko apirilaren 20ko 2004/116 erabakian Giza Eskubideen Batzordeak adierazitako iritziaren arabera, Arauek kontuan hartzeko "osagai eta ideia erabilgarriak" dituzten arren, proposamen direnez ez dute "lege-aginpiderik". Lantaldeak eta Azpibatzordeak hasitako lana jarraitzeko berriz ere adierazi beharrean, Giza Eskubideen Batzordeak Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari eskatu zion Ordezkari Berezi bat izendatzeko enpresa transnazionalen eta bestelako merkataritza-enpresen eta

[34] E/CN.4/Sub.2/2003/12/Rev.2, 2003ko abuztuaren 26a.

Giza Eskubideen gaia jorra zezan[35]. Ordezkari Bereziak behin-behineko txostena aurkeztu dio Batzordeari. Ordezkariaren iritziz, Arauen Proiektuak "gehiegikeria doktrinalak" egin ditu eta horren ondorio da "arauen ahultasunek *distrazio* bihurtzen dituztela aurrera egiten jarraitzeko oinarri baino gehiago"[36] (letra etzana geuk jarri dugu). Argi ikusten da Arauen etorkizuna nahiko zalantzazkoa dela.

Azaldu dugun azterketan nahiko argi geratzen da ekonomia gero eta globalizatuagoan enpresa transnazionalak hartzen ari diren botere gero eta handiagoa dela eta, premia larria dagoela enpresa horiei erantzukizunak eskatzeko, Giza Eskubideetan duten eraginagatik. Estatu espainiarrean zein nazioartean egiten ari diren ekimenei babesa eman behar genieke.

V. Pribatizazioa Giza Eskubideen ikuspegitik[37]

Gaur egungo globalizazio-prozesuaren funtsezko osagai bihurtu dira pribatizazioak eta, beraz, estatuarenak izan ohi diren hainbat zerbitzu eta funtzio hartu dituzte bere gain eragile pribatuek. Pribatizazio-programen kopurua asko hazi da planeta osoan azken bi hamarkadetan. W. L. Megginson esparru horretako aditu garrantzitsuenetakoa da. Haren arabera, "azken 25 urteetan pribatizazioa izan da munduko politikaren eta ekonomiaren joera nagusietako bat, eta enpresa publikoen lana ikaragarri gutxitu du herrialde garatuetan nahiz garapen bidean dauden herrialdeetan"[38].

Orain arte, pribatizazioa aztertzeko nagusitu den ikuspegiak alderdi ekonomikoei begiratu die batez ere, eta onartu egin du zenbait pribatizazio-sistema direla eraginkortasun ekonomikoa, malgutasuna eta zerbitzuen kalitatea handitzeko modurik onena[39]. Estatuaren irabaziak handitzeko eta gobernuak ekonomian duen esku-hartzea gutxitzeko modu gisa ere ikusten da pribatizazioa, eta horrek lehia handiagoa sortzen du[40]. Ikusmolde ekonomiko horrek ez ditu inondik ere

---

[35] 2005/69 Ebazpena. 2005eko uztailaren 25ean, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (ECOSOC) 2006/73 erabakia hartu zuen. Horren bidez, Batzordearen eskaria onartu zen eta, hiru egun geroago, 2005eko uztailaren 28an, Idazkari Nagusiak Harvardeko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanen irakasle John Ruggie izendatu zuen Ordezkari Berezi.

[36] E/CN.4/2006/97, 2006ko otsailaren 22a, 59 eta 69. parag.

[37] Azterketa askoz luze eta sakonagoa egiten da hemen: DE FEYTER, K. and GÓMEZ ISA, F. (Arg.): *Privatisation and Human Rights in the Age of Globalisation*, Intersentia, Antwerp-Oxford, 2005.

[38] W.L. Megginson, 'Privatization in perspective: the last twenty years', in *Teoría y Política de privatizaciones: su contribución a la modernización económica. Análisis del caso español*, Madril, SEPI Fundazioa, 2004, 45. or.

[39] Building Better Partnerships; The Final Report of the Commission on Public Private Partnerships, London, IPRP, 2001, 253. or.

[40] Pribatizazio-prozesu bizi baten aldeko argudio nagusiak irakurtzeko, ikus W.L. Megginson: *op. cit*.

kontuan hartu pribatizazio-prozesu batek Giza Eskubideetan izan ditzakeen ondorioak[41]. Duela oso gutxi hasi dira lehenengoz Giza Eskubideetan izan ditzakeen eraginak modu kritikoan aztertzen, pribatizazio-prozesuak osasunaren, hezkuntzaren, gizarte-segurantzaren edo ur-horniduraren sektoreei eragiten hasi direnean. Komunitate akademikoak[42] zein ekintzaileek[43], baita Nazio Batuetako Giza Eskubideen zenbait organok ere, ardura adierazi dute pribatizazio-prozesuek Giza Eskubideetan izan ditzaketen eraginengatik. Esate baterako, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituna ezartzeari buruzko Txekiar Errepublikaren hasierako txostena aztertuta, hauxe jo zuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordeak kezka-iturri nagusietakotzat Azken Oharretan: "Gizarte-segurantza sistemak nahikoa ez izateak eragin txarrak eduki izana eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen erabileran berregituratze- eta pribatizazio-prozesuan zehar, bereziki talderik baztertuen eta marjinatuenetan"[44]. Kezka gero eta handiago horren ondorioz, Eztabaida Orokorrerako Eguna deitu zuen Nazio Batuetako Haurraren Eskubideen Batzordeak 2002ko irailean, "Sektore pribatua zerbitzu-emaile gisa eta haurraren eskubideak ezartzeko egiten duen lana" sakon aztertzeko. Horixe da orain arte egin den hurbilketarik sistematikoena eta osoena pribatizazio prozesuek Giza Eskubideetan oro har , eta, bereziki, haurraren eskubideetan duten eragina aztertzeko. Estatukoak ez ziren eragileek, GKEak eta enpresak barne, egiten zuten lanari ongietorria egiten zien Batzordeak eta, aldi berean, adierazi zuen "gero eta arduratuago zegoela pribatizazio handiagorako joera dela eta, oinarrizko premiak betetzera zuzendutako zerbitzuetan ere, esaterako, osasuna, hezkuntza edo ura"[45]. Batzordeak ohartarazpen hori egin zuen pribatizazio-prozesuetan ez zituztelako soilik esku pribatuetan uzten enpresa publikoak, baizik eta

---

[41] Harrigarria da pribatizazioei buruzko literatura aztertuz gero, Giza Eskubideei buruzko ezer ez dela esaten. Badaude pribatizazioaren eraginak aberastasunaren banaketaren ikuspegitik aztertzen duten lanak, baina ez dute egiten Giza Eskubideen ikuspegitik. Pribatizazioak aberastasunaren banaketan duen eraginari buruz irakurri nahi izanez gero, ikus V.V. Ramanadham, 'The impacts of privatization on distributional equity', in V.V. Ramanadham (arg.), *Privatization and Equity*, London, Routledge, 1995, 1-34. or.; E. Sheshinski and L.F. Lopez-Calva, 'Privatization and its Benefits: Theory, Evidence and Challenges', in K. Basu; P.B. Nayak and R. Ray (arg.), *Markets and Governments*, New Delhi, Oxford University Press, 2003.

[42] A. Christmas, *Report of the Seminar on Privatization of basic services, Democracy and Human Rights*, Community Law Centre, University of Western Cape, 2-3 October 2003; E. Drent, 'Privatization of basic services in Canada: Some recent experiences', 4 *ESR Review* nº 4, 2003.

[43] V. Shiva, *Water Wars: Privatization, pollution and profit*, Cambridge, MA: South End Press, 2002; M. Gavalda, 'La guerra del agua en Bolivia', in *Agua, ¿Mercancía o Bien Común?*, Alikornio Ediciones, Bartzelona, 2003, 323-345. or.

[44] Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen azken oharrak: Czech Republic, E/C.12/1/Add.76, 2002ko ekainaren 5a, 10. parag.

[45] Day of General Discussion, The Private Sector as Service Provider and its Role in Implementing Child Rights, 31st Session, UN Doc. CRC/C/121, 2002ko irailaren 20a, 4. or.

nazioartean onartutako Giza Eskubideetan oinarritzen diren funtsezko zerbitzuak ere. Honelaxe laburbildu ditu kezka horiek guztiak Sihaka Tsemok[46], Giza Eskubideetarako Nazio Batuetako Goi Mandatariaren Bulegoko Afrika Hegoalderako Eskualdeko Ordezkariak:

1. Hainbat abiaduratako sistema bat ezarri da: herritarrik aberatsenei zuzendutako sektore pribatua eta pobreenen premiez arduratzen den sektore publikoa, finantzatzeko arazo gero eta gehiago dituena.
2. Sektore publikotik pribaturanzko "garun-ihesa" bultzatu da, soldata eta azpiegitura hobeek erakarrita.
3. Helburu ekonomikoei eta errentagarritasunari eman zaie garrantzia, helburu sozialak alde batera utzita.
4. Sektore pribatuak gero eta botere handiagoa du, eta, egoera larrian jar dezake estatuak Giza Eskubideak bermatzeko arduradun nagusi gisa duen eginkizuna, sistema arautzaileak iraultzen dituelako presio politikoaren bidez eta arautzaileak kooptatuz.

Pribatizazio-prozesuen ondorioz baliabide eta zerbitzuen banaketa desegokia izateko aukerarekin dute zerikusia beste kezka batzuek[47]. Horrek gizarteko talderik ahulenei eragiten die batez ere. Errusia eta trantsizioan dauden beste herrialde batzuk dira adibiderik adierazgarrienak.

Berez, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak jarrera neutrala du pribatizazioei dagokienez; ez da ageri ez pribatizazioaren alde ez kontra[48]. Aukera horri sendo eusten dio Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordearen 3. Ohar Orokor famatuak, hau da, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Itunak ezartzen dituen estatuen betebeharren izaerari buruzkoak. Batzordearen ustez, Itunak ez du sistema ekonomiko jakin bat aldezten, betiere estatua demokratikoa bada eta Itunean jasotzen diren eskubideak babesteko konpromisoa hartu badu. Ohar Orokor horretako 8. paragrafoak dioenez,

> "Batzordearen iritziz, "bitarteko egoki guztien bidez neurriak hartzeko..." konpromisoak ez du exijitzen ez baztertzen edozein gober-

[46] S. Tsemo, 'Privatization of basic services, democracy and human rights', 4 *ESR Review* 4. zk., 2003.

[47] A. Steinherr, 'The Future of Privatization', in Teoría y Política de Privatizaciones: su contribución a la modernización económica. Análisis del caso español, Madril, SEPI Fundazioa, 2004, 955. or.

[48] P. Hunt, 'The international human rights treaty obligations of state parties in the context of service provision', en *Day of General Discussion, The Private Sector as Service Provider...*, *op. cit.*, 4-5. or.

nu edo sistema ekonomiko espezifiko erabiltzea neurriak hartzeko bide gisa. Salbuespen bakarra da Giza Eskubide guztiak horren arabera errespetatu behar dituela. Hortaz, sistema politiko eta ekonomikoei dagokienez, Ituna neutrala da eta ezin dira deskribatu haren printzipioak sistema sozialista edo kapitalista baten premian edo egokitasunean soilik oinarrituta daudela esanez, ezta ekonomia mistoaren, planifikazio zentralizatua duen edo *laisser-faire*-an oinarritzen den ekonomiaren premian edo egokitasunean, edota bestelako edozein planteamendu espezifikotan ere. Alde horretatik, Batzordeak berretsi egiten du Itunean onartutako eskubideak sistema ekonomiko eta politiko asko eta askotarikoetan erabil daitezkeela. Baldintza bakarra da Giza Eskubide-multzo bien arteko mendekotasuna eta zatiezintasuna onartzea..."[49].

Argi ikusten denez, pribatizazioa ez da baztertzen, betiere ez badu Giza Eskubide guztiak erabiltzeko aukera kaltetzen. Ikuspegi hori ageri da Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (1989) ere. 3.1. artikulua Hitzarmeneko funtsezko xedapenetako bat da. Hauxe dio haurren eskubideak zuzendu behar dituen oinarrizko printzipioak, *haurraren interes gorena*,izenekoak: "gizarte-ongizateko erakunde publikoek edo *pribatuek* haurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan..., haurraren interes gorena izango da kontuan hartuko den funtsezko gaietako bat" (letra etzana geuk jarri dugu). Hitzarmenak onartu egiten du haurren eskubideei eragiten dieten zenbait zerbitzu erakunde pribatuek eman ditzaketela. Garrantzitsuena da erakunde horiek ere haurraren interes gorena hartzea ardatz zerbitzuak emateko.

Hala ere, ikusi dugunez, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea neutrala bada ere pribatizazioari dagokionez, jakin behar dugu zenbateraino jar diezazkiokeen mugak edo baldintzak pribatizazio-prozesu jakin bat egiteko moduari. Estatuak ezin die uko egin onartu dituen Giza Eskubideen arloko betebeharretatik sortzen zaizkion erantzukizunei: pribatizazioak ez ditu estatuak betebeharrik gabe uzten[50]. Estatuak dira, oraindik ere, Giza Eskubideen arloko betebeharren eran-

---

[49] 3. Ohar Orokorra, estatuen betebeharren izaera (Itunaren 2.1. artikulua), E/1991/23, III. Eranskina, 8. parag.

[50] Giza Eskubideen Europako Auzitegiak jarrera hori azpimarratu du *Costello-Roberts kasuan*. Kasu horretan, Erresuma Batua erantzuletzat jo zuen Auzitegiak, titulartasun pribatuko eskola batean gertatutako ekintzengatik. Estrasburgoko Auzitegiak zioenez, estatuak ezin du "...beraren erantzukizuna saihestu, betebeharrak eragile pribatuen edo gizabanakoen esku utziz", in *Costello-Roberts v. United Kingdom*, ECtHR, Series A, 48 zk., 27. parag. Antzeko jarrera izan du Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordeak Israelek aurkeztutako hasierako txostenari egin dizkion Azken Oharretan. Batzordeak adierazi zuen "estatu batek ezin dituela Itunak ezartzen dituen betebeharrak saihestu, gobernuaren funtzioak pribatizatuz", E/C.12/1/Add. 27, 1998ko abenduaren 4a, 11. parag.

tzule nagusiak, eta Giza Eskubide guztiak errespetatu, babestu eta bete behar dituzte[51]. Laburbilduz, estatua da Giza Eskubideak bermatzearen *azken erantzulea*. Ikuspegi hori nabarmendu zuten eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketei buruzko Maastrichteko Arauek. Arau garrantzitsu horien arabera,

> "Gerra Hotzaren amaieratik joera bera nabarmendu da munduko ia toki guztietan; hain zuzen ere, estatuaren eginkizuna gutxitu egin da, eta merkatuan jarri da konfiantza gizakiaren ongizate-arazoak konpontzeko... Ezin dugu gehiago ziurtzat jo eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak estatuaren jardueraren mende baino ez daudenik, nahiz eta, Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegitik, estatuak jarraitzen duen eskubide horiek izatearen bermearen *azken erantzule* izaten..."[52] (letra etzana geuk jarri dugu).

Kontuan hartzen badugu estatua Giza Eskubideen arloko betebeharren azken erantzuletzat jotzen duen ideia, bistan da estatuak mugak eta baldintzak ezartzeko eskubidea eta betebeharra duela pribatizazio-prozesuetan[53]. Betebehar hori dela eta, pribatizazioaren Giza Eskubideen ikuspegia aztertu behar dugu; Giza Eskubideei buruzko kezkak kontuan hartu behar dira pribatizazio-prozesu guztietan, hasiera-hasieratik. Estatuak bi alderditan du zeresana: lehenengo eta behin, Giza Eskubideen betebeharrei eragiten dien zerbitzu jakin bat pribatizatzeko erabakia; bigarrenik, zerbitzuaren funtzionamendua esku pribatuetan utzi ostean.

Zerbitzu jakin bat pribatizatzeko erabakiari dagokionez, estatuak kontu handiz neurtu behar ditu erabaki horrek Giza Eskubideetan izan ditzakeen ondorioak. Estatuek *Giza Eskubideen gaineko eraginaren balioztatzea* egin behar lukete pribatizatzeko erabakia hartu baino lehen. Paul Huntek gogor defendatu du Giza Eskubideei buruzko eragin-azterlanak egin behar direla: pribatizazio-prozesuak "egin aurretik, eskubideari buruzko eragin-azterlan independente, objektibo eta publikoa egin behar litzateke"[54]. Funtsezkoa da jakitea zenbateraino gida dezakeen estatuak pribatizazio-prozesua oinarrizko Giza Eskubideak bermatzeko eta

---

[51] N. Rodemann, *Financing the Right to Water*, Friedrich Ebert Stiftung, Side event to the 60th Session of the UN Commission on Human Rights, 22 March.

[52] Maastricht Guidelines on Violations of Economic, Social and Cultural Rights (1997), in Human Rights. Maastricht Perspectives, Maastricht, Maastricht Centre for Human Rights, 1999, 22. or., 2. parag.

[53] Garapen-eskubideari buruzko Adierazpenaren 2.3. artikuluaren, hau da, 1986ko abenduaren 4an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako Adierazpenaren arabera, "estatuek nazio-garapenerako politika egokiak eratzeko eskubidea eta betebeharra dute, biztanle guztien eta gizabanako denen ongizatea etengabe hobetzeko. Biztanleek parte-hartze aktibo, libre eta adierazgarria izatea da politika horien oinarria, eta garapenaren onurak egokiro banatzea.

[54] P. Hunt, *op. cit.*, 5. or.

estatu horrek berak berma dezakeen eragile pribatuek ere eskubide horiek errespetatuko dituztela[55]. Green Cross Internationaleko Zuzendari Nagusi Bertrand Charrierrek esperientzia zabala du uraren hornikuntzaren eta baliabide naturalen babesaren arloan. Aurreko paragrafoan aipatutakoa dela eta, Charrierrek dio estatuak ez badu pribatizazio-prozesu osoa ikuskatzeko modurik (oso ohikoa garapen-bidean dauden herrialdeetan) eta ez badu prozesuaren norabidea kontrola dezakeen gizarte zibil indartsurik, pribatizatzeko erabakirik ez litzatekeela hartu behar[56]. Pribatizazio bati buruzko erabakia hartzeko prozesu osoa erabat gardena izan eta informazioa modu egokian banatu behar litzateke[57]. Gizarte zibila funtsezkoa da pribatizazio-prozesu guztietan, eta prozesua erabat gardena bada soilik parte har dezake[58], eta informazioa egokia bada. Hala, "zeinahi informazio eta ideia bilatu, jaso eta zabaltzeko"[59] eskubidea bermatuko da. Eskubide hori eskubide zibil eta politikoei buruzko Nazioarteko Ituneko 19.2. artikuluan dago onartuta. Ustelkeria saihesten saiatzeko modua ere bada informazioaren banaketa osoa, tamalez pribatizazio-prozesu asko izaten baitira ustelak[60]. Bukatzeko, zerbitzu bat pribatizatzeko erabakia hartu behar denean, horren eragina jasango duten guztiek izan behar lituzkete eskura beharrezko baliabide juridikoak erabaki horri aurre egiteko eta ordain egokiak lortzeko, eragin txarren bat izango duela frogatzen bada[61].

Arazoetako bat da estatuak ez direla guztiz burujabe eta autonomoak zenbait zerbitzuren azpikontratazioa erabakitzeko; esate baterako, hezkuntza, osasunlaguntza edo uraren hornikuntza. Batzuetan, nazioarteko finantza erakundeek eratu eta inposatu dituzten politikak ezartzen dituzte soilik, bereziki Munduko Bankuak eta Nazioarteko Moneta Funtsak inposatutakoak, garapen-bidean dau-

---

[55] Day of General Discussion, The Private Sector as Service Provider and its Role in Implementing Child Rights, op. cit., 6. or.

[56] B. Charrier, Cuadernos Internacionales de Tecnología para el Desarrollo Humano aldizkarian egindako elkarrizketa, 2004ko udaberria, 63. or.

[57] Pribatizazio-prozesuetan informazioak duen garrantziari buruz, ikus G. Mortensen, *Consuming Democracy? The Right to Know*, Institute of Human Rights of the University of Deusto, EMA, July 2002, 64. or.

[58] Eskubide zibil eta politikoei buruzko Nazioarteko Ituneko 25 a) artikuluan jasotzen da gai publikoen norabidean parte hartzeko eskubidea.

[59] Eragindako biztanleei kontsulta egokia egiteko informazio nahikorik eta egokirik ez izatea da pribatizazio-prozesuei egin zaien kritika nagusietako bat. Informazioaren gardentasun-falta hori izan da Quitoko udalak (Ekuador) uraren hornikuntza-zerbitzua pribatizatzeko duela gutxi egin dituen saiakeren ezaugarria, in R. Rodriguez, 'Municipio de Quito, Ecuador, quiere privatizar el agua', *Tintají*, 2004ko abuztuaren 24a (hemen irakur daiteke artikulua: www.altercom.org/article1930.html).

[60] J.L. Montes, 'Hasta dónde puede llegar la privatización', in Teoría y Política de Privatizaciones: su contribución a la modernización económica. Análisis del caso español, Madril, SEPI Fundazioa, 2004, 228. or.

[61] 15. Ohar Orokorra, Ura izateko eskubidea (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituneko 11. eta 12. artikuluak), E/C.12/2002/11, 2003ko urtarrilaren 20a, 56. parag.

den herrialde gehienei agindu zaizkien Egitura Doikuntzarako Programen barruan. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordeak behin eta berriro gogorarazi die nazioarteko hitzarmenak negoziatzen dituzten estatuei horrelako hitzarmenek ez dutela eragin negatiborik izan behar eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaletan[62]. Hezkuntza-eskubideari dagokionez, hauxe aldarrikatu du Batzordeak:

> "nazioarteko hitzarmenen negoziazioari eta berrespenari dagokienez, estatuek neurriak hartu behar dituzte tresna horiek eragin txarrik izan ez dezaten hezkuntza-eskubidean. Halaber, haien betebeharra da nazioarteko erakundeetako kide gisa egiten dituzten jarduerek hezkuntza-eskubidea behar den bezala kontuan izatea, baita nazioarteko finantza-erakundeetako kide gisa egiten dituztenetan ere"[63].

Bestalde, nazioarteko finantza-erakundeek berek ere kontuan hartu beharko lituzkete beren programa eta politiketan oinarrizko eskubideen erabileran dituzten ondorioak. Alde horretatik, Haurraren Eskubideetarako Nazio Batuen Batzordeak "haurren eskubideak kontuan har ditzaten biziki gomendatzen die estatuei, Nazioarteko Moneta Funtsari, Munduko Bankuari eta bestelako finantza-erakundeei eta eskualdeko bankuei... maileguak eta programak negoziatu behar dituztenean"[64].

Pribatizatutako zerbitzuaren funtzionamendua da aztertu beharreko bigarren osagaia. Pribatizatzeko erabakia hartu ondoren, estatuak baldintza batzuk ezarri behar dizkie zerbitzuaz arduratu behar duten eragile pribatuei. Baldintza horiek ezartzeko, erabakigarria da hitzarmen edo kontratu xehatua egitea zerbitzua hornitu behar dutenekin; "erantzukizunak eskatzeko funtsezko tresna" bihurtuko da kontratua, "horixe baita eragile pribatuek erantzukizuna izateko erabil daitekeen oinarri bakarra"[65]. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordeak hainbat baldintza orokor ezarri ditu, eta estatuek kontuan hartu

---

[62] 12. Ohar Orokorra, Elikadura Egokia izateko Eskubidea (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituneko 11. artikulua), E/C.12/1999/5, 1999ko maiatzaren 12a, 41. parag.; 14. Ohar Orokorra, Ahalik eta osasun-maila posiblerik onenerako eskubidea (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituneko 12. artikulua), /C.12/2000/4, 2000ko abuztuaren 11, 39. parag., eta Ura izateko eskubidea..., op. cit., 60. parag.

[63] 13. ohar orokorra, *Hezkuntza-eskubidea (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituneko 13. artikulua)*, E/C.12/1999/10, 1999ko abenduaren 8a, 56. parag.

[64] Day of General Discussion, The Private Sector as Service Provider and its Role in Implementing Child Rights, op. cit., 21. or.

[65] G. Mortensen, *op. cit*., 21. or.

behar dituzte eskubide sozial eta ekonomikoak ezarri behar dituztenean. Aztertzen ari garen pribatizazio-prozesuei ere aplikatu ahal zaizkie baldintza horiek. Horren ondorioz, zerbitzu jakin bat bideratzen ari diren eragile pribatuek ere bete behar dituzte baldintza horiek, eta estatuak ikuskatu egin behar du betetzen dituzten. Batzordearen iritziz[66], hauexek dira baldintza horiek:

1. *Erabilgarritasuna*: eskubide ekonomiko, sozial eta kultural nahikoa egon behar da eskura.

2. *Irisgarritasuna*: eskubideak pertsona guztien esku egon behar dira, inolako diskriminaziorik gabe. Lau dimentsio irizpide gainjarri ditu irisgarritasunak:

   a. *Diskriminaziorik eza*: eskubideek guztien esku egon behar dute, baina bereziki gizarteko talderik ahulenen esku.

   b. *Irisgarritasun fisikoa*: biztanleriako sektore guztiek izan behar dute fisikoki eskubideetara iristeko aukera, bereziki ezgaitasunen bat duten pertsonek.

   c. *Irisgarritasun ekonomikoa (eskuragarritasuna)*: eskubide sozial eta ekonomikoek guztien eskura egon behar dute: Estatuek ziurtatu egin behar dute pertsona guztiek ordain ditzaketela zerbitzuak, baita talde baztertuek ere[67].

   d. *Informazioa eskuratzeko aukera*: pribatizatu diren zerbitzuei buruzko zeinahi informazio bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubideak ere egon behar du irisgarritasunaren barruan.

3. *Onargarritasuna*: zerbitzuen funtzionamenduak egokia izan behar du, kulturaren aldetik, eta kontuan hartu behar ditu gutxiengo etnikoen eta herrialde indigenen premiak.

4. *Kalitatea*: eskubideen kalitatea erabakigarria da. Pribatizazioaren ondorioz ez litzateke gutxitu behar ematen den zerbitzuaren kalitatea.

---

[66] Irizpide horien definiziorik onena hemen dago: 14. Ohar Orokorra, osasun-eskubideari buruzkoa, in *Ahalik eta osasunmaila posiblerik onenerako eskubidea (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituneko 12. artikulua)*, *op. cit.*, 12. parag. Batzordeak ezarritako irizpide osagarri bat dago ura izateko eskubideari buruz : *iraunkortasuna*ren irizpidea da. Horren arabera, ez dira gaur egungo belaunaldien premiak soilik kontuan hartu behar, baizik eta etorkizuneko belaunaldienak ere, in *Ura izateko eskubidea, op. cit.,* 11. parag.

[67] Zerbitzuen pribatizazioari buruzko kezka nagusia da zenbateraino errespetatzen den eskuragarritasun ekonomikoaren irizpidea. Hainbat adibidek frogatzen dute pribatizazioak, azkenean, gizarteko talderik marjinatuenek sektore pribatuetako zerbitzuak eskuratzeko duten ahalmenari eragiten diola, bereziki uraren sektorean, in J. Shultz, 'Privatization versus human rights: Lessons from the Bolivian Water Revolt', 4 *ESR Review* nº 4, November 2003; N. Rosemann, *The Human Right to Water under the conditions of trade liberalization and privatization. A study of the privatization of water supply and wastewater disposal in Manila*, Berlin, Friedrich Ebert Stiftung, 2003.

Horrez gain, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak hiru betebehar-mota ezartzen dizkie Ituneko estatuei: errespetatzeko, babesteko eta betetzeko betebeharra (*respect*, *protect* eta *fulfil*, ingelesezko bertsioan)[68]. *Errespetatzeko betebeharra*ren ondorioz, estatuek ezin dute zuzenean edo zeharka oztopatu eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen erabilera. *Babesteko betebeharra* dela eta, estatuek neurriak hartu behar dituzte beste alderdi batzuek eskubide horien erabilera oztopa ez dezaten. Bukatzeko, *betetzeko betebeharragatik*, estatuek neurri egokiak hartu behar dituzte legeen, administrazioaren, aurrekontuen, epaien eta bestelakoen aldetik bigarren belaunaldiko aurrekontuei eraginkortasun osoa emateko.

Pribatizazio-prozesuen arloan, babesteko eskubidea da garrantzitsuena. Izan ere, beste alderdi batzuek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak haustea eragotzi behar dute estatuek. Estatuek "zaindu egin behar dute pribatizazioa... ez dadila izan" emandako zerbitzuen "erabilgarritasunerako, irisgarritasunerako, onargarritasunerako eta kalitaterako mehatxua"[69]. Beraz, estatuek *arreta egokia* (*due diligence*) izan behar dute eragile pribatuek zerbitzuak nola kudeatzen dituzten ikuskatzeko eta kontrolatzeko. Arreta egokia izateko betebehar hori aipatu ditugun Maastrichteko Arauetan ageri da:

> "babesteko betebeharraren barruan dago erakunde pribatuek edo gizabanakoek, haien jurisdikziopean dauden enpresa transnazionalak barne, gizabanakoei eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak kentzen ez dizkietela ziurtatzeko estatuaren erantzukizuna. Estatukoak ez diren eragile horien jokabidearen kontrolean *arreta egokia* ez izateagatik gertatzen diren eskubide-hausteen erantzule dira estatuak"[70] (letra etzana geuk jarri dugu).

Eskema arautzaile bat ezartzeko premia inposatzen die estatuei arreta egokiaren betebehar horrek, eragile pribatuek egin ditzaketen gehiegikeriak saihesteko[71]. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen arabera, "gehiegikeria horiek saihesteko, sistema arautzaile eraginkorra ezarri behar da, Itunaren ara-

---

[68] Ikus horri buruz *Ahalik eta osasun-maila posiblerik onenerako eskubidea* (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituneko 12. artikulua), op. cit., 33. parag.

[69] *Ibid*., 35. parag.

[70] Maastricht Guidelines, *op. cit*., 18. parag.

[71] Eskema arautzaile horrez gain, Haurraren Eskubideen Batzordeak "zerbitzu-hornitzaile pribatuak bultzatzen ditu beren *auto-erregulazio mekanismoak* garatzera. Mekanismo horiek kontrol- eta ikuskatze-sistema izan beharko dute..." (letra etzana geuk jarri dugu, in *Day of General Discussion, The Private Sector as Service Provider and its Role in Implementing Child Rights, op. cit., 17. or.*

berakoa..., ikuskatze independentea, benetako parte-hartze publikoa eta ez betetzeagatik isunak ezartzen dituena”[72].

Halaber, Batzordeak “uste du estatu bakoitzari dagokiola gutxienez eskubideetako bakoitzaren *oinarrizko mailak* betetzen direla bermatzeko *betebehar minimoa*”[73] (letra etzana geuk jarri dugu). Gutxieneko betebehar hori eta oinarrizko mailak ezartzen badira, estatu batek ezin du, inolaz ere, hori ez betetzea justifikatu; betebehar hori ezin daiteke indargabetu. Pribatizazio-prozesu jakin batek ezi luke hautsi behar eskubide batzuek ezarritako gutxieneko muga; estatuak ziurtatu egin behar du edozein eskubideren funtsezko alderdiak herritar guztiei bermatzen zaizkiela.

Horrez gain, garrantzitsua da uste hau ere: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Itunari jarraiki, *neurri atzeragarririk* ezin da hartu[74]. Uste sendo hori dela eta, aldarrikatzen dugu pribatizazio-prozesu baten emaitzak ez duela eskubide sozial eta ekonomikoen erabilera kaltetu behar, estatua baita haiek bermatzearen azken erantzule. Alde horretatik, “berariaz atzeraeraginezkoak diren neurri guztiak... ardura handiagoz pentsatu eta erabat justifikatu behar dira, Itunean aurreikusitako eskubide guztiei dagokienez eta eskura dauden baliabide ahalik eta gehien ustiatuz”[75].

VI. Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeen jardueretan Giza Eskubideen gaineko kezka txertatzeko saiakerak

Badakigu garapena eta Giza Eskubideak guztiz banatutako bi mundu izan direla, logika, tresna eta estrategia ezberdinekoak. Egoera horrek azaltzen du, hein batean, Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeen zein garapenaren esparruan lan egiten duten Nazio Batuen bestelako erakundeen eta Giza Eskubideen erakundeen arteko banaketa. 70eko hamarkadan hasi zen aldatzen status quo hori eta, bereziki, 80ko hamarkadan. 70eko hamarkadan, Hirugarren Munduko herrialdeek, 77en Taldearen (G-77) laguntzaz, egundoko presioa egin zuten Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berria ezartzearen aldeko kideak eta babesa lortzeko. Nazio Batuen Batzar Nagusiak ez zuen artean erabiltzen Giza

[72] Ura izateko eskubidea..., op. cit., 24. parag.

[73] Estatuen betebeharren izaera..., op. cit., 10. parag.

[74] Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituneko 2.1 artikuluak *era mailakatuan egitea* aipatzen du. Era mailakatu hori dela eta, Maastrichteko Arauek diote “eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak hautsi daitezkeela... bermatutako eskubideetako edozeinen irismena gutxitzen duen edozein neurri atzeragarri hartzeagatik”, in Maastricht Guidelines, *op. cit*., 25. or., 14 e) parag.

[75] Estatu kideen betebeharren izaera..., op. cit., 9. parag.

Eskubideen hizkuntza Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berria Ezartzeari buruzko Adierazpenean. Hala ere, eskubide horiei buruzko ikuspegi zabal batekin zerikusia zuten kezkak adierazten zituen. Hasteko, honen aldeko deialdia egin zuen Batzar Nagusiak: "Munduko arazo ekonomikoak konpontzeko herrialde guztien parte-hartze oso eta eraginkorraren alde, berdintasunean oinarrituta, herrialde guztien mesederako"[76]. Buruan zuen Bretton Woodseko erakundeetan herrialde pobreek pairatzen zuten, eta oraindik pairatzen duten, bazterketa eta marjinazioa. Bestalde, historian lehenengoz, Nazio Batuen organo batek "enpresa transnazionalen jarduerak arautzearen eta ikuskatzearen" alde egin zuen, "enpresek jarduerak egiten dituzten herrialdeetako ekonomia nazionalaren mesederako neurriak hartuz, herrialde horien burujabetza osoan oinarrituta"[77]. 80ko hamarkadan, zorraren krisia lehertu ondoren, mundu osoari eragiten zion arazo hori konpontzeko laguntzen hasi ziren Bretton Woodseko erakundeak, Egitura Doikuntzarako Programa famatuak antolatuz. Lehenengo Programak aplikatu bezain laster, Programa horiek Hegoaldeko herrialdeetako milioika pertsonaren bizitzetan zituzten eragin sozialak kritikatzen hasi ziren zenbait, eta gizalegezko doikuntzaren alde egin zuten. Nazio Batuetako Giza Eskubideen organoak gero eta arreta gehiago jartzen hasi ziren Programa horiek Giza Eskubideen erabileran zituzten ondorioei eta, horren bidez, garapenaren eta Giza Eskubideen arteko harreman zail baina beharrezkoa hobeto ulertzen lagundu zuten. Testuinguru horretan hasi zen pentsatzen garapena Giza Eskubide autonomo eta banatutzat jo behar zela. Giza Eskubideen hirugarren belaunaldi bat aldarrikatzeko premia larria adierazi zuten Hirugarren Munduko zenbait akademiko garrantzitsuk. Elkartasun-eskubideak izan behar zuten, eta lehendik zeuden bi belaunaldiak osatu, eskubide zibil eta politikoenak nahiz eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalenak. 1981ean Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Batzordeak sortu zuen lantalde batean egindako eztabaida- eta negoziazio-prozesu luze eta zail baten ondoren, *Garapen-eskubidearen adierazpena* onartu zen, gehiengo nabarmenaz[78], 1986ko abenduaren 4ko NBEren Batzar Nagusian[79]. Garapenaren eta giza

---

[76] 3201 (S-VI) Ebazpena, 1974ko maiatzaren 1ekoa, 4.c). oinarria.

[77] *Ibid*., 4. g). Oinarria. Enpresa transnazionaletarako Jokabide Kodea eratzeko ahaleginen jatorrian dago deialdi hori. Kontuan hartu behar dugu Nazio Batuek egin dituzten Jokabide Kodearen zirriborroak modu espliziituan adierazten duela enpresek oinarrizko Giza Eskubideak babestu behar dituztela.

[78] Adierazpen horri buruzko azken bozketa ondo erakusten du nazioarteko komunitateko herrialdeen jarrera. 146 estatuk bozkatu zuten alde; zortzi, abstenitu egin ziren (Alemaniako Errepublika Federala, Erresuma Batua, Suedia, Finlandia, Japonia, Danimarka, Islandia eta Israel), eta, bukatzeko, herrialde bakar batek, Estatu Batuek, bozkatu zuen kontra. Garapen-eskubideari buruzko azterlan zehatza hemen irakur daiteke: GÓMEZ ISA, F.: *El derecho al desarrollo como derecho humano en el ámbito jurídico internacional*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1999.

[79] 41/128 Ebazpena, 1986ko abenduaren 4koa.

eskbideen arteko lotura argia da Adierazpen horren alderdirik bikainenetakoa. Ordutik aurrera, ezin zen garapen-prozesurik bultzatu Giza Eskubide guztien sustapen eta babesik gabe, eskubide zibil eta politikoak nahiz ekonomiko, sozial eta kulturak aintzat hartu gabe. Ez dago garapenik Giza Eskubide guztiak ez badira ardura handiz errespetatzen. Garapen-eskubideari buruzko Adierazpenaren hitzaurrean, lehenengoz aipatzen da bi esparruen arteko ezinbesteko lotura. Xedapen horretan irakurtzen dugunez,

> "oinarrizko Giza Eskubide eta askatasun guztiak zatiezinak eta elkarren mendekoak dira...; garapena sustatzeko, arreta eta premia beraz aztertu behar litzateke eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen aplikazioa, sustapena eta babesa. Hori dela eta, funtsezko zenbait Giza Eskubide eta askatasun sustatzeak, errespetatzeak eta erabiltzeak ezin du justifikatu funtsezko beste Giza Eskubide eta askatasun batzuk ukatzea".

Era berean, Adierazpeneko funtsezko zatian bada adierazpen garrantzizkorik garapenaren kontzeptuaren bilakaerari buruz. Garapen-eskubideari buruzko Adierazpeneko 2.1. artikuluaren arabera, "gizakia da garapenaren subjektu nagusia, eta garapen-eskubidearen parte-hartzaile aktibo eta onuraduna izan behar du". Xedapen garrantzitsu horri esker, Giza Garapenaren kontzeptua errazago hedatu zen 80ko hamarkadaren amaieran, Amartya Sen[80] eta beste zenbait akademikoren babespean eta Garapenerako Nazio Batuen Programaren laguntza instituzionalaz. Giza Eskubideak funtsezkoak eta ezinbestekoak dira gaur egun, garapena alor askotatik behatzen eta aztertzen duen ikuspegitik begiratuta[81].

Garapenari hurbiltzeko modu berri horrek Nazioarteko Finantza Erakundeetan ere izan du eragina, itxuraz bederen. Beren politika eta programetan Giza Eskubideei buruzko oharrak jasotzen joan dira arian-arian Munduko Bankua eta, neurri txikiagoan, Nazioarteko Moneta Funtsa. Nazioarteko Finantza Erakundeek jaso dituzten kritika gero eta handiagoekin zerikusia du paradigma-aldaketa hori azaltzen duen beste arrazoi garrantzitsu batek. Eragin globala duten ekonomia- eta finantza-politikak antolatu eta ezartzean izan duten eginkizunagatik jaso dituzte kritika horiek, eta garapenaren nahiz Giza Eskubideen ikuspegitik politika horiek duten eraginagatik. Alde horretatik, Bretton Woodseko erakundeek

---

[80] Ikus, besteak beste, garapenaren eta Giza Eskubideen arteko harremanaren zailtasunei buruzko bere teoriak biltzen dituen liburua, in SEN, A.: *Development as Freedom*, Anchor Books, New York, 1999.

[81] ALSTON, P. and ROBINSON, M. (Arg.): *Human Rights and Development. Towards Mutual Reinforcement*, Oxford University Press, Oxford, 2006.

antolatu eta ezarritako Washingtoneko Hitzarmena oso gogor ari dira zalantzan jartzen une honetan. *Garapenaren Orotako Esparruan* (*Comprehensive Development Framework*)[82] adierazita dago erakunde horien garapenaren gaur egungo ikuspegia, eta garapenaren osagai guztien arteko mendekotasuna azpimarratzen da. Ikuspegi horren arabera, "ezin dugu eduki makroekonomia eta finantzak egitura, gizarte eta giza alderdiekin zerikusirik ez duten osagaitzat jotzen dituen sistemarik, ezta alderantzizkorik ere. Osagai horiek guztiak behar-beharrezkoak dira, bai estatu bakoitzean bai eragile globalen artean".

Gero eta nabariagoa da Munduko Bankuaren diskurtsoan Giza Eskubideei buruzko iritziak sartzen ari direla. Esate baterako, hausnarketa hauek ageri dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. Urteurrena dela eta Bankuak egindako adierazpenean: "garapenaren helburu nagusi eta saihestezinetako bat da Giza Eskubideak eskuratzeko baldintzak sortzea...; Bankuak zuzenean laguntzen du Adierazpen Unibertsalean onartutako eskubideetako asko betetzen"[83]. Duela gutxi, Munduko Garapenari buruzko 2006ko Txostenaren aurkezpen-hitzaldi batean, *Zuzentasuna eta garapena* izen adierazgarriarekin, Giza Eskubideak "Bankuaren lanaren funtsa bera"[84] direla adierazi zuen Bankuan itzal oso handia duen kide batek (Roberto Dañino).

Giza Eskubideei lotutako alderdiei ematen zaien arreta gero eta handiagoari erantzuteko, Munduko Bankuak hainbat Politika eta Arau Operatibo onartu ditu, Bankuak dituen proiektuak egiteko Bankuko langileek kontuan hartu beharrekoak. Politika Operatibo horietako bat ere ez da, berariaz, Giza Eskubideei buruzkoa; hala ere, funtsezko alderdiei buruzkoak dira gehienak, eskubideen ikuskera zabaletik begiratuta. Esate baterako, Politika Operatiboak sortu dira pobrezia-murrizketari, herri indigenei edo ingurumen-eragineko azterlanei buruz... Koen de Feyterren iritziz, Politika Operatiboek Giza Eskubideen terminologiarik erabiltzen ez duten arren, eskubideen babes-maila jakin bat eskaintzen dute, bai eskubide zibil eta politikoen arloan (proiektuen eragina jasaten duten taldeen parte-hartzea sustatzen da), baita eskubide ekonomiko, sozial eta politikoen arloan ere ("hezkuntza, osasun-laguntza eta bestelako gizarte-zerbi-

[82] WOLFENSHON, J.: *A proposal for a comprehensive development framework*, 1999, www.worldbank.org/cdf orrian dago eskura.

[83] GAETA, A. and VASILARA, M.: *Development and Human Rights: the role of the World Bank*, Washington D.C., the World Bank, 1998, 2-3. or.

[84] World Bank Legal Forum 2005, available at http://sireresources.worldbank.org/INTTOPLEGFOR/Resources/Legal Forum 2005.doc.

tzuak... eskuratzeko aukera handiagoa" exijitzen du pobrezia gutxitzeari buruzko Politika Operatiboak)[85].

Ikuskatze-panela sortzea izan zen Munduko Bankuaren beste aurrerapen garrantzitsu bat. Bankuaren Zuzendaritza Nagusiak sortu zuen, 1993an, Bankuko langileek barruko arauak betetzen zituzten jakiteko. Panela organo independentea da, eta hara jo dezakete Munduko Bankuak finantzatutako proiekturen batek kaltetu dituela uste duten hiritar partikularrek edo taldeek, edo eragin hori izan dezaketenek[86]. Funtsean, Bankuak egiten dituen proiektuetan gardentasuna eta erantzukizuna handitzeko gizarte zibilak egindako presio gogorrengatik sortu zen panela. Ikuskatze-panela ez da inolaz ere perfektua (administrazio-izaera du judiziala baino gehiago; Zuzendaritza Nagusiak garrantzi handia du prozeduraren faseetan; ez die ordainik eskaintzen Bankuaren jarduerengatik kaltetutako pertsonei[87]...). Hala eta guztiz ere, bide onean egindako urrats garrantzitsua izan da. Hasteko, erakutsi du gizarte zibilak erakunde globaletan eragin dezakeela, gizakien eta gizartearen iritziei arreta handiagoz entzun diezaieten. Bestalde, Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeek gardentasuna, erantzukizuna eta Giza Eskubideak beren politika eta jarduteetan sar ditzaketela erakutsi digu. Ikuskatze-panelaren esperientzia hori beste erakunde batzuek ere jarraitu behar lukete, argi-ilunak baditu ere.

Nazioarteko merkataritzari eta Giza Eskubideen erabilera egokian izan ditzakeen ondorioei eskaintzen ari zaien arreta gero eta handiagoa da ikusten ari garen bilakaerako azken urratsetako bat. Duela oso gutxi arte, bazter utzi dira merkataritza, alde batetik, eta Giza Eskubideak, bestetik. Esparru horien integrazio handiagoa aldarrikatzen duen Caroline Dommenen[88] ustez, soilik 1998tik aurrera hasi ziren eragileak arlo bien artean zeuden loturak ikusten, Inbertsioei buruzko Akordio Multilateralaren negoziazioen testuinguruan, Lankidetza eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen babesean. Ordutik, globalizazioaren aurkako mugimenduek, garapena sustatzeko GKEek, Giza Eskubideen aldeko GKEek,

---

[85] DE FEYTER, K.: "The International Financial Institutions and Human Rights..., *op. cit*., 572. or.

[86] Panelaren funtzionamendua sakon aztertu nahi izanez gero, ikus ALFREDSSON, G. and RING, R. (Arg.): *The Inspection Panel of the World Bank: A Different Complaints Procedure*, Martinus Nijhoff Publishers, The Hague, 2001. Bankuak berak egindako azterlan bat hemen irakur daiteke: *Responsabilidad y Transparencia en el Banco Mundial. Panel de Inspección, los Primeros 10 años*, Munduko Bankua, Washington D.C., 2003.

[87] DE FEYTER, K.: "The International Financial Institutions..., *op. cit*., 579 eta 580. or.

[88] DOMMEN, C.: "The WTO, international trade and human rights", in WINDFUHR, M. (Arg.): *Beyond the Nation-State. Human Rights in Times of Globalisation*, The Global Publications Foundation, 2005. Caroline Dommenek Trade-Human Rights-Equitable Economyrentzat egiten du lan, esparru horretan lan asko egiten duen GKE batentzat, hain zuzen ere. Hemen duzue erakundeari eta haren lanari buruzko informazioa: www.3dthree.org.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen organoek, sindikatuek, komunitate akademikoak... gero eta garrantzi handiagoa eman diete nazioarteko merkataritzari buruzko negoziazioek pertsona askoren Giza Eskubideetan izan ditzaketen ondorioei, bereziki Hegoaldeko herrialdeetan. Negoziazio horiek Munduko Merkataritza Erakundean (Merkataritzari eta Zerbitzuei buruzko Hitzarmen Orokorra; Merkataritzari lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen Alderdiei buruzko Hitzarmena, *TRIPS Agreement*...) nahiz Erakundetik kanpo egin izan dira.

Aipatutako eragileak guztiz erne jarri zituzten Merkataritzari lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen Alderdiei buruzko Hitzarmenak sendagaiak guztientzat arrazoizko prezioan eskuratzeko eskubidean izan zitzakeen ondorio txarrek. Nazioarteko hainbat GKEk kanpaina globala egin zuten osasunaren eskubidea babesteko funtsezkoak diren sendagaiei Merkataritzari lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen Alderdiei buruzko Hitzarmena aplikatzean malgutasuna izan zezaten sustatzeko, bereziki talderik ahulenen osasun-eskubidea babesteko, eta zenbait gobernuk –esaterako Brasil, India eta Hego Afrikakoak– lagundu egin zieten. Kanpaina hori oso arrakastatsua izan zen. Oihartzun eta laguntza handia lortu zuten iritzi publikoan Munduko Merkataritza Erakundea *Merkataritzari lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen Alderdiei buruzko Hitzarmenari eta Osasun Publikoari buruzko Dohako Adierazpena* onartzera behartzeko, 2001eko azaroaren 14an, Ministerioko Laugarren Biltzarrean[89]. Adierazpen horrek agerian uzten du "jabetza intelektuala babestea garrantzitsua dela sendagai berriak garatzeko" eta, aldi berean, adierazten du badakiela "prezioetan dituen eraginen gaineko kezkak" daudela. Horregatik, Dohako Adierazpenak azpimarratzen du "Merkataritzari lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen Alderdiei buruzko Hitzarmenak ez lukeela eragotzi behar estatuek neurriak hartu ahal izatea osasun publikoa babesteko... Munduko Merkataritza Erakundeko Kideek osasun publikoa babesteko duten eskubideari laguntzeko interpretatu eta ezarri behar litzateke Hitzarmena eta, bereziki, guztientzako sendagaiak sustatzen laguntzeko. Dohako Adierazpena ezartzeari buruzko zalantzak daude oraindik, baina zenbait gauza ikasi behar ditugu prozesu interesgarri horretatik: Merkataritzari lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen Alderdiei buruzko Hitzarmenak oinarrizko sendagaien prezioetan duen eraginari buruzko datu-bilketa eta ikerketa kuantitatibo oso onak, bereziki GIB/HIESa tratatzeko sendagaien prezioei buruzkoa; oso ondo antolatutako kanpaina-estrategia; barruko zein nazioarteko gobernu ahaltsu batzuen laguntza; Nazio Batuetako hainbat organoren konplizitatea, Giza Eskubideen arloan diharduten zenbait erakunderena barne (Giza Eskubideak Sustatzeko eta Babesteko

[89] WT/MIN(01)DEC/2, 2001eko azaroaren 20a.

Azpibatzordea, Giza Eskubideen Batzordea, Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa...).

VII. Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeetan Giza Eskubideak txertatzeko zenbait proposamen

Azken atal honetan zenbait ideia eskaintzen saiatuko naiz, Giza Eskubideak erakunde horien arau, politika eta jarduteetan integratzeko estrategiak antolatzen saiatzeko. Behar-beharrezkoa da hori, ekonomia globala zuzentzen duten erakundeak eragile garrantzitsu bihurtzea nahi badugu gehien behar duten herrialde eta pertsonentzat. Hemen zerrendatuko ditudan proposamenak eztabaidarako hausnarketa-saioak baino ez dira, gai horietan interesa duten pertsona eta talde guztiek pixkanaka osa ditzaten.

Ekintzen funtsezko garrantzia estatu espainiarrean

Estatu espainiarreko politikak zehazten dituzten erakundeetan eragiten saiatzea da Giza Eskubideak eta giza garapenari lotutako alderdiak erakunde globalen dinamiketan txertatzeko eta zeharkako bihurtzeko modu onenetako bat. Premia hori une honetan sentitzen da bereziki, merkataritza-negoziazioak eskualdeetako eta alde biko foroetara mugitzen ari baitira. Izan ere, herrialde industrializatuak konturatu dira Munduko Merkataritza Erakundearen esparruan askoz zailagoa dela beren interesak erabat betetzen dituzten akordioak lortzea, gizarte zibilak eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko koalizio indartsuek egiten duten presioa dela eta.

Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeen arauak, politikak eta jarduteak Giza Eskubideetan oinarrituta aztertu behar dira

Eskubideen aldetik landu eta aplikatu behar ditugu erakunde globalen arau, politika eta jarduteak. Ikusi dugunez, honelaxe eragin ohi dute Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeek Giza Eskubideetan eta garapenean: estatu bakoitzean, Giza Eskubideak babesteko behar diren neurriak arautzeko edo hartzeko gobernuek duten gaitasuna mugatzen dute, garapen-eskubidea barne. Oinarrizko zerbitzuen pribatizazio gero eta handiagorako joeraren nahiz merkataritzaren eta inbertsioaren liberalizazioaren bidez, gutxitu egin nahi dute estatuak talderik ahulenen Giza Eskubideen, garapenaren eta premien alde arautzeko duen gaitasuna. Baina, aldi berean, ez genuke ahaztu behar estatuek bere gain hartu dituztela Giza Eskubideak babestu eta sustatzeari buruzko betebehar asko, ikusi dugunez. Pertsona guztien Giza Eskubideen alde arautzeko eskubidea eta

betebeharra du estatuak[90]. Beste behin ere, azpimarratu behar dugu Giza Eskubideen Zuzenbidea bestelako erregimen juridiko ororen gainetik dagoela. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordeak oso erabilgarriak izan daitezkeen zenbait irizpide proposatu ditu mundu osorako politikak antolatu eta aplikatzen dituztenentzat. Pribatizazio-prozesuak Giza Eskubideen ikuspegitik jorratu ditugunean aztertu ditugu irizpide horiek. Honela laburbil daitezke: *erabilgarritasuna* (nahikoa eskubide egon behar du eskura); *irisgarritasuna* (pertsona guztiek iritsi behar dute eskubideetara eta eskubide horiek ordaintzeko aukera izan behar dute, inolako diskriminaziorik gabe); *onargarritasuna* (zerbitzuak kulturaren aldetik egokiak izatea hartu behar da kontuan) eta, bukatzeko, eskainitako zerbitzuen *kalitatea*.

Eragin-azterlanek metodologia egokia izan behar dute

Batzuetan, zaila da identifikatzea eta neurtzea arau eta politika globalek Giza Eskubideen erabileran duten eragina, bereziki eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen arloan. Ikertzeko ditugun metodoak eta tresnak hobetu behar ditugu, ikerketa kuantitatiboa eta azterketa kualitatiboa modu egokian elkartuz. Arrazoi hori dela eta, metodologia egokia behar dugu eraginak neurtzeko. Alde horretatik, Giza Eskubideen Nazio Batuetako Goi Mandatariak estatuak bultzatu ditu "eragin-azterlan publikoak, independenteak eta gardenak egitera, liberalizazio-politikek Giza Eskubideetan duten eragina jakiteko, eragindako gizabanakoak eta taldeak kontsultatuko dituen prozesu parte-hartzaileen bidez". Era berean, Goi Mandatariak "estatuak adoretzen ditu eragin-azterlanak oinarri gisa erabil ditzaten Munduko Merkataritza Erakundean liberalizazio handiagorantz egiten diren negoziazioetan. Horrelako eragin-azterlanik ez badago, estatuei gomendatzen die zuhurtziaz aritzeko konpromiso berriak onartu baino lehen, eta eraginak argi finkatzeko"[91].

Giza Eskubideak babesteko mekanismoak hobeto erabili behar dira

Jakina denez, Giza Eskubideak babesteko eta sustatzeko mekanismo-multzoa dago nazioartean zein eskualdeetan eta estatuetan: Giza Eskubideen nazioarteko itunek sortutako organoetan estatuek aurkeztu behar dituzten aldizkako txostenak, gizabanakoen eskariak, Nazio Batuetako Giza Eskubideen batzordeek egindako ohar orokorrak... Duela oso gutxi arte, organo horiek arreta gutxi eskaini diote politika globalek Giza Eskubideei eragiteko duten moduari. Alde horreta-

[90] OHCHR: *Human Rights, Trade and Investment*, E/CN.4/Sub.2/2003/9, 2 July 2003.

[91] OHCHR: Liberalization of Trade in Services and Human Rights, E/CN.4/Sub.2/2002/9, 25 June 2002.

tik, estrategiak antolatu behar ditugu, liberalizazioari buruzko politika eta jardute horiek organo horietara eramateko, Giza Eskubide jakin batzuen gaineko eragin txarra baldin badute[92]. Bestalde, jabetu behar gara eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak babesteko mekanismoak ez daudela eskubide zibil eta politikoetarako mekanismoak bezain garatuta. Bigarren belaunaldiko eskubideak babesteko mekanismoak eta tresnak garatzeko premia larria dago. Alde horretatik, ahalik eta azkarrena hezurmamitu behar litzateke 90eko hamarkadatik negoziatzen ari diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei buruzko Nazioarteko Itunaren Borondatezko Protokoloa.

Nazioarteko Finantza eta Merkataritza Erakundeetako eztabaidak konpontzeko mekanismoak hobeto erabili behar dira

Eztabaidak konpontzeko mekanismo oso aurreratuak dituzte Munduko Bankuak (*Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa*; ingelesez, ICSID) zein MMEk (*Apelazio Organoa* eta *Panela*). Hor ere ikusten da beharrezkoa dela mekanismo horiek erabiltzea eta deliberazioetan giza-eskubideei buruzko oharrak gehitzea, *Amicus Curiae* gisa jarduteko, eskabideak aurkeztuz. Giza-eskubideen arloan aginteak dituzten GKEek eta Nazioarteko Erakundeek aukeraz baliatu behar lukete erakunde horietako erabakiak hartzeko prozesuetan Giza Eskubideei buruzko kezkak txertatzeko.

Adibide berri honek oso argi erakusten du giza-eskubideei buruzko oharrak aipa daitezkeela eztabaidak konpontzeko mekanismo horien aurreko prozeduretan: 2005eko maiatzaren 19an, *Aguas Argentinas et al versus Argentina Kasua* izeneko kasuan zenbait GKEk Amicus Curiae gisa idazki bat aurkeztea baimendu zuen Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroko Arbitraje Auzitegi batek. Zentro horretako Auzitegi batek era horretako erabaki bat hartzen duen lehenengo aldia izan da. Kasuarekin zerikusia zuten konpainia pribatuek errefusatu egin zuten erabakia. Enpresa pribatu bat ordezkatuz, 1993az geroztik Buenos Aireseko metropoli-barrutiko ur-sistemaren kontrolaz eta kudeaketaz arduratu den enpresa-partzuergoa da Aguas Argentinas. Salaketa bat aurkeztu zuen Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroan partzuergoak, uste zuelako egindako inbertsioengatik jasotako ordaina ez zela bidezkoa izan. Inbertsio horiek, hein batean, Argentinako Gobernuak hartutako zenbait erabakirengatik egin zituen kasu horrek metropoli-barruti horre-

[92] OVETT, D.: "Intellectual property, development and human rights: how human rights can support proposals for a World Intellectual Property Organization (WIPO) development agenda", *Policy Brief*, nº 2, February 2006, p. 3 (available at www.3dthree.org).

tan bizi ziren pertsonen oinarrizko eskubideei eragiten zieten interes publikoko zenbait konturi eragiten ziela adierazi zuten bost GKEk. *Amicus Curiae* idazkia justifikatuta zegoela onartu zuen Zentroaren Auzitegiak, GKEek azaldutako arrazoiengatik. Auzitegiaren hitzak (gogoangarriak) azalduko dizkizuegu hemen. Adierazpen honen bidez, horrelako kasuetan Giza Eskubideei buruzko oharrak aintzat har daitezkeela eta hartu behar direla onartu zuen:

> "kasu honi interes publikoa ematen dion faktorea hauxe da: metropoli-barruti zabal bateko (Buenos Aires eta inguruko udalerriak) uren banaketa- eta saneamendu-sistemari buruzkoa da inbertsioaren gaineko eztabaida. Milioika pertsonaren oinarrizko premiak kudeatzen dituzte zerbitzu horiek. Hori dela eta, Zuzenbide Publikoko eta Nazioarteko Zuzenbideko arazo konplexu asko izan daitezke, *giza-eskubideei buruzkoak barne*. Egoera horretan hartzen den erabaki orok... eragina izan dezake sistema horien funtzionamenduan eta, hortaz, zerbitzua jasotzen duten pertsonengan" (letra etzana geuk jarri dugu).

Kasu hori ebazteke dagoen arren, ate garrantzitsu bat zabaltzen du "giza-eskubideei buruzko oharrak" horrelako organoetako erabakiak hartzeko prozesuetara gehitu ahal izateko.

Gizarte-mugimenduen eta GKEen arteko elkarrizketa serioa behar da

Itun estrategikoak sortu behar ditugu eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak hobeto defenditzeko, hau da, mintzagai ditugun politika globalek kaltetuenak. Horretarako, hitz egiteko eta elkarreragiteko esparruak sortu behar dira Iparreko zein Hegoko arazo globalen inguruan lan egiten duten gizarte-mugimenduen artean: garapena sustatzeko GKEak, ingurumen-taldeak, giza-eskubideen aldekoak, emakumeen mugimenduak, indigena-taldeak, sindikatuak... Hobeto ulertu behar dugu zergatik dauden esparruak hain bateratuta eta elkarri lotuta. Center for Economic, Social and Cultural Rightseko zuzendari Eitan Felnerrek[93] dioenez, ikerketa kuantitatiboa, azterketa kualitatiboa eta Giza Eskubideak defenditzeko eta presio politikoa egiteko estrategiak modu egokian uztartu behar ditugu. Pentsaera sortzailea eta ekintza estrategikoak erabiltzeko gai baldin bagara, bestelako mundu bat sortzeko helburutik hurbilago ibiliko gara.

---

[93] FRIDEk eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak antolatutako adituen Mintegian aurkeztutako txostena, Giza Eskubideen Batzordearen ordez Giza Eskubideen Kontseiluaren sorrera eta haren erronkak aztertzeko, 2006ko apirilaren 6a eta 7a, Casa de América, Madril. Hemen irakur daitezke mintegiko zenbait txosten eta ondorio nagusiak: ALMQVIST, J. ETA GÓMEZ ISA, F. (Arg.): "El Consejo de Derechos Humanos: Oportunidades y Desafíos", *Cuadernos Deusto de Derechos Humanos*, 40. zk., 2006.